


INURRI LANA BIZIMODU

Valentin Bengoa jesuita,
ELAn urte askoan
ibili da lanean 20



599 €

Ontzi-garbigailua
G4210 SC Brws
Special



799 €

Arropa-garbigailua
W 3164 LW



999 €

Lehorgailua
bero bonba
T 8860 WP LW



599 €

Erabilera anitzeko labea
H 4314 B ED/Cist



Miele-ren kalitatea zure etxera itzuliko da

Beti bezala, Miele banatzaile ofizialetan kalitate eta zerbitzurik onena eskaintzeko apustua egiten dugu.

Horretarako, zure eguneroko lanei erosotasunez eta berrikuntzekin erantzungo dien etxe-tresna elektrikoen bilduma osatu dugu. Diseinua, iraunkortasuna, funtzionamendu ezinhobea, zerbitzu eta aholkularitza maila altua eta benetan prezio harrigarriak.

Miele promozioaren abantailak zure eskura daude. Aprobetxatu itzazu.

Azkoiti-Azpeitiko Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897



Made in
Germany

*2013.01.07tik 2013.04.31ra gomendatutako prezioak (biak barne). RAEE kostuak barne. %21 BEZ barne.
Beste eskaintzekin baterazineko prezioa.

Miele
SIEMPRE MEJOR

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
 (Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarria@uztarria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 149.a (2013ko apirila)
Urtea. XIV.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
 oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. I. Agirretxe
Webgunea.
www.uztarria.com

**Uztarria herri aldizkariaren
 laguntzaileak** (erakunde
 publikoak)



Gipuzkoako
 Foru Aldundia



Uztarriak **Oharra.** Uztarria
Bai Euskarari Komunikazio
 Taldeak ez du
 bere gain hartzen
 herri aldizkariaren
 adierazitako
 esanen eta
 iritzien
 erantzukizunik



2013KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



04

iritzia

Inkesta. San Jose lorak
 jan al dituzu inoiz? **13**


mamia

Maria Jesus Bernaras.
 30 urte Azpeitiko
 anbulatorioan lanean,
 familia-mediku **04**
Klik! Norvegiako
 paisaiak eta fenomeno
 naturalak,
 argazkilarien paradisu
16

Hileta-zibilak. Azken
 agurra bide zibiletik,
 Udalaren hainbat
 aretotan **24**

jakiteko

Bestaldetik. Eguzkiñe
 Peña, berdegunetik
 kanpoko kontuez
 solasean **34**



16



34

Ba al dakizu, oraindik ere, jendea erruz
 inguratzen de la Luiziak harrapatutako
 zuo la baserria ikustera? **Uztarria**


egin zaitez bazkide Uztarrian

943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
 eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
 atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira urtean.
gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.
 110.000 euroko aurrekontua du
 Uztarriak 2013. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza

MARIA JESUS BERNARAS

familia-medikua

“EZINBESTEKO DA psikologo Lana egitea”

Urrian beteko ditu 30 urte, herriko anbulatorioan lanean hasi zela. Hiru hamarkadatan egindako lana medio, oso ezaguna egin da herrian. 📎📷 A. Agirrezabala

Goizetan ez bezala, arratsaldeko bostetan deserta dirudi anbulatorioak. Isiltasuna da nagusi. Osasun-zentroko bere kontsultan hartu du Uztarría Maria Jesus Bernaras familia-medikuak, lanbide horretan daratzen 30 urteei errepasoa emateko prest.

Umetan galdetzean handitan zer izan nahi zenuen, medikua erantzuten al zenuen?

Nire ama bizi da oraindik, eta hark esaten du nik txikitatik esaten nuela medikua izan nahi nuela. Eta, egia da. Nik ez dut eduki zalantzarik. Amona, amaren ama, emagina zen, eta baserriz baserri aritzen zen erditzeetan laguntzen. Erreleboa ere badatorkit. Illoba

medikua da, eta orain alaba gazteena, Eider, medikuntza ari da ikasten. Egia esan, ez nuen espero. Sekulako ezustekoa eman zidan. Alaba zaharrenari eta semeari esan izan nien medikuntza ikasteko, baina txikienarekin inoiz ez dut propagandarik egin. Bigarren mailan ari da eta ikasketekin laguntzen diot, anatomia-eta errepasatzen; zoragarria da.

Zenbat urte daramazu Azpeitiko anbulatorioan?

Urrian 30 egingo ditut. Aurretik, ikasketak bukatu eta MIRa prestatzen ari nintzela, ordezkapen bat egiteko aukera suertatu zitzaidan, eta azkenerako hiru urte Ataunen –San Gregorion eta Aian– egin nituen. Ataungo mediku etxean bizi nintzen senarra eta

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1956ko martxoak 27.

||| **Herria.** Urretxu. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Familia-medikua.

alabarekin, eta noski, orduan mugikorrik ez zegoen, eta 24 orduz egoten nintzen etxean. Ez zen oso ohikoa, baina goizeko lauretan kotxea hartu eta joanda nago ni baserri puntetara. Gure belau-naldia berria zen, gauzak beste modu batera egin nahi izan genituen, eta 24 orduz zerbitzuan egoten ginen. 24 urte nituen, alaba ere bagenuen ordurako, lau urtekoa, eta egia esan, itota bizi nintzen. Ataunen nengoela, oposaketetara aurkeztu, plaza atera eta Azpeitira etorri nintzen.

Urte guztiotan lana egiteko modua nola aldatu da?

Erabat aldatu da. Ni Azpeitian hasi nintzenean hemen ez zegoen ezer. Ez zen existitzen artxiborik, pazienteak ez zeuden identifikatuta, ez zuten historiarik. Oraingo Baigera I-eko eraikineko beheko solairuan zegoen garai batean anbulatorioa. Ignacio Artetxe, Carlos Orbea, Xanti zaindaria, erizainak eta beste medikuren bat geunden, gehienera ere hamar lagun. Jendea joan eta kontsulta-zenbakia hartzen zuten, arraindegian bezala. Beste mundu bat zen hura. Zerbitzuak askoz ere murriztagoak ziren. Goizean, hiru-lau orduz egiten genituen anbulatorioan kontsultak, baina eguerdian etxera joan eta 17:00ak arte guardian egoten ginen. Edozein etor zitekeen



etxera. Horrelaxe bizi genuen, normaltasunez.

Eta lanerako baliabideei dagokienean?

Baliabide gutxi genuen. Ez zegoen ezer ere. Odol-analisiak, erradiografiak, espezialistekin kontsultak... egitera Donostiara joan beharra zegoen. Zumarragako ospitalea ez zegoen artean eta

Donostiara, Groseko anbulatorkiora, bideratzen genuen jendea. Gero, 1985ean, inauguratu zen osasun-zentro hau, eta honekin batera Zumarragako ospitalea. Denbora gutxira, analitikak eta erradiografiak egiteko zerbitzua jarri genuen, eta Zumarragatik espezialistak hona etortzen hasi ziren. Urte gutxitan aldaketa

handia eman zen. Baita dedikazioari eta laguntza-medikoari zegokionean ere. Zortzi orduko asistentzia genuen, zentroan bertan. Egia esan, talde nahiko sendoa eta finkoa izan gara, eta geure arteko harremana beti ona izan da.

Paziente-mediku harremanean bilakaerarik antzeman al duzu?

Bai, baina oraindik ere, Azpeiti bezalako herrietan, harremanak nahiko gertukoak dira. Espazioa, orokorrean, errespetatzen da. Beti dago, denean bezala, muga horiek nahasten dituenik. Niri etxera ia inork ez dit hots egiten. Hasieran, beraiek ere horrela ohi-tuta zeudelako, batzutan deitzen zidaten. Pixka bat gogorra izan zen hori; markatu nahi duzu diferentzia; baina kostatu egiten da. Gainontzean, harremanari dagokionean, hori agian nire pazienteek esan beharko lukete, baina salto handia eman dela uste dut. Saiatzen gara jendea errespetatzen, haien motiboak ulertzen... eta bai, gertuko harremana dugu. Gaixoak ezagutu ahala, babesa bilatzen du gudan eta gela honetan gauza asko esaten dira.

Zeu oso ezaguna zara herrian, kalean zoazela 'lana' egitea tokatu al zaizu?

Askotan. Denek esaten didate: 'Badakit ez dela momentua, baina...'. Ez da gustagarria, benetan. Paziente bakoitza kontsultan sartzerako ordenagailuan begiratzen dugu haren historia eta egu-

neratzen zara, baina kalean gertatzen zaituztenean... oso desatsegina da. Eta, gaurko egunean ere gertatzen da hori.

Psikologo lana egitea ere tokatuko zaizu, ezta?

Asko. Harremana dagoen herri hauetan naturala da. Guk beti esaten dugu osasuna ez dela osasun fisikoa bakarrik; osasuna da osasun fisikoa, osasun psikologikoa eta gizarte osasuna. Esaterako, etxean arazo potolo bat badut, oso sano egongo naiz fisikoki, baina psikologikoki, emozionalki oso gaizki. Eta horrek pertsona gaixotu egiten du. Orduan, osasuna beti ulertu behar da testuinguru batean. Lotura handia dago gaitz fisikoen eta psikikoen artean. Asko kostatzen zaigu onartzea hori. Gainera, ahulagoak gaudenean, beldurra nagusitu egiten zaigu. Orduan, ezinbestekoa da psikologo lana egitea.

Murrizketak zerbitzu publiko askotara ailegatu dira. Zuei eragin al dizuete?

Ez nuke dramatizatu nahi, baina kontrolak asko gehitu dira bajetan gastatzen den diru kopuruan; espezialistetara egiten ditugun deribazioetan eta errezetetan —medikamentu generikoak diren ala ez—. Osasun publikoa mantentzearen alde nago ni, eta iruditzen zait gure aldetik hori egin behar dugula, baina batzutan jasaten dugun presioa handia da. Menua librea zen sistema batetik gatoz, eta murrizketek batzutan jartzen gaituzte bi pareten artean, administrazioaren eta pazientearen artean, egoera deserosoan. Duela 30 urte beharrak oso argiak ziren medikuaren aldetik, baina gaur egun, presioa handiagoa dugu pazientearen aldetik. Eta, noski, beti ere akordio batera ailegatu nahi duzu gaixoarekin, baina batzuetan ez da erraza. Ordutegiari dagokionean ere murrizketak eman dira. Horrek niri suposatzen dit urtean 104 ordu gehiago sartzea: antzinatasunagatik 80 ordu eta 24 gehiago urteko lanaldia luzatzearen ondo-

“Ni Azpeitian hasi nintzenean, hemen ez zegoen ezer ere”

“Kalean noala 'lana' egitea tokatu zait, eta ez da gustagarria”

rioz. Horrek dakar gutxiagoren artean lan gehiago egitea; ordezkapenak ere nabarmen jaitsi dira, lan karga gehituz eta denboraren poderioz kalitatea gutxituz.

Lehen errezeta barruan sartzen ziren medikamentu asko orain ordaindu behar dira. Zer iruditzen zaizu?

Hori ere pixka bat konplikatu da esplikatzeko. Guk ulertzen dugu horiek ez direla osasunerako oinarritzko botikak. Oinarritzko botiketaren ez da ezer ere kendu; hori garrantzitsua da. Bizi-kalitatea hobetzen duten zenbait botiken kasuan derrigortzen dute pazientea erostera. Hori nola ikusten dugun? Teorian osasunarentzako ez dira hil ala biziko botikak, baina zenbait jenderentzat sakrifizio handia da jarabe bat sei-zortzi euro ordaintzea. Egoerak eta egoerak daude, eta horren aurrean ez da erraza *tabla rasa* egitea, baina zenbait jenderentzako neurri gogorra iruditzen zait.

Egunean zenbat paziente hartzen dituzu?

Batez beste, 30 paziente. Etxetik atera ezin diren gero eta adineko jende gehiago dugu, eta egunero, bisita bat edo bi ere egiten ditugu. Zeozer txarra izan daitekela eta badaezpada ere frogak egite hori asko eskatzen da, baina iruditzen zait, oro har, jende gehienak erabilera ona egiten duela. Autonomia gehiago landu behar luke pazienteak, ez hain dependienteak izan gauza askotan. Gurasoen jakinduriarekin gauza asko sendatu dute gure belaunaldiak eta gure aurrekoak. Sendabelarren erabilera galtzen ari da eta pena da. Akaso, guk ere gure zientifismo horretan ez dugu jakin izan behar bezala zaintzen eta

errespetatzen. Mespretxu txiki bat izan diogu sendabelarren munduari, baina nik gero eta gehiago baloratzen dut. Badakit mediku asko ez direla horren aldekoak. Nik ez dut praktikatzeko, baina errespetatu egiten dut, eta gustatu egiten zait, gainera, jendeak praktikatzeko Euskal Herriaren historian milaka urtetan erabili diren erremedioak. Oso interesgarria da eta iruditzen zait, gainera, bere neurrian autonomoak izatea promozionatu egin behar dugula.

Jendea joaten al zaizu esanaz, sintoma hauek ditut eta Interneten begiratu dut eta...

Gero eta gehiago. Gertatzen dena da, gauza askotan bezala, informazio asko dagoela, eta informazio hori diskriminatzea falta da, galbahe hori pasatzea. Horrek ekartzen du kezka, beldurra, eta hein batean, 'badaezpada ere' hori. 'Nik dudak sintoma ez ote da tumore batena izango? Ez ote da hobe eskaner bat egitea?'. Pazientearen aldetik informazio gehiegi ekartzeak exijentziak aldatu egiten ditu. Eta, noski, familiar bizitzako esperientzia negatiiboek ere eragina dute.

Azpeitiarrek, oro har, zer nolako osasuna dute?

Adin batetik aurrera jendea arduratzen da bere osasunarekin. Osasuna mantentzeko gai ez den pertsonaren arazoa askotan ez da izaten ardua falta. Esaterako, nire egoera txarra bada, bakarrik banago, ilusiorik gabe, ezin badut edan... orduan, sakrifizioa zertarako egin behar dut? Alegia, bizitzeko motibazio onak dituen osasun ona edukitzearekin asko arduratzen da. Iruditzen zait ardu-

ratsua dela jendea, gehienak motibazioarekin, nahiko ondo egiten dituztela gauzak.

Jendea bere kabuz erraz medikatzen al da?

Errazegi. Gainera, iruditzen zait jendeak fede handia duela ondoakoak esaten dionari. Garrantziarik ez duten botikak balira, tira. Baina batzutan harrituta geratzen naiz bizilagunak esan diola eta zeinen erraz hartzen dituzten antibiotikoak.

Familia-mediku lanbideak zer alde on ditu?

Gure osasun kontzeptuan –fisioko, psikologikoa eta gizarte egoera– dena lotzen dugu osasunarekin. Pazienteak nahi badu ez zara azalean geratzen; arazoan sakondu egiten duzu. Gaixorekin sintomek lotura handia izango dute nik baldin badakit zein den haren egoera psikologikoa eta egoera horrek nola eragiten dion pertsonari, eta horrek ikaragarri laguntzen dio gaixoari berari diagnostikora ailegatzen. Azken batean, ingurua zaila dugulako gaixotzen gara, askotan. Gaur egungo ekonomia krisiaren eragina jende askoren osasunean antzematen da. Pertsona gehienek osasun arazoa ulertzeko garaian

oso pribilegiatuak gara familia-medikuak.

Eta alderdi txarra?

Notizi txarrak eman beharra. Hori oso-oso gogorra da, eta ez zara ohitzen inoiz horretara. Aurrez aurre duzun pertsonari notizi txar bat ematen hasten zarenean ikusten duzu aurpegia nola aldatzen zaion, bere inpakto emozionala. Bere bizitzan zer aldaketa eman behar duen eta berak nola somatzen duen hori. Niretzako gauza gogorrenetakoa hori da. Eta, horrez gain, batzutan baita ere larrialdiak. Gipuzkoa erdian gaude, Zumarraga 20 kilometrora dugu, bide txarrarekin; Donostia 50 kilometrora, eta guk anbulatorioan denetik ikusten dugu. Tartean, larritasun egoerak ere bai, eta larritasun egoerek asko estresatzen zaituzte. Igoal duzu paziente bat bihotzekoak emanda oso larri, arnasketa gelditzeko arriskuan, eta baliabide oso gutxiarekin. Alderdi txarren artean aitatuko nuke baita ere, pazientearen eta medikuaren artean konfiantza dagoenean, zenbaitetan konfiantzaren erabilera ez dela ona izaten gaixorekin aldetik.

Bitxikeriak ere gertatuko zitzaizkizun.

Xelebrekeriak bat baino gehiago; batzuk kontatzeko modukoak ez direnak. Azpeitian hasiberri nintzela, larunbat batean erditze bat atenditu beharra tokatu zitzaidan baserri batean. Joan ginen, hasi ginen, esperientzia gutxi ere bai artean, niretzako gauza berria zen hura. Orduan hemen Valentina Agirre zegoen emagin, eta hura etorri zen gero, eta harekin ondo moldatu nintzen. Bestelako xelebrekeria asko ere bai, baina denak ezin dira esan.✘



Harri polikromatua

Gure inguruko monumentu zaharrak, eta oro har harrian landutako dekorazio, erliebe eta eskulturak, kolorerik gabe ikusten ohitu gara. Mende luzeetan zehar pentsatu izan da Atenasko Partenoia, Eliza gotiko dotoreak eta abar, margotu gabeak zirela, eta miretsi ere hala egin izan ditugu. Gaur egun, badakigu egin zirenean ez zutela gaur egun duten itxurarik, baizik eta hainbat kolorez margotuak, hau da, polikromatuak zirela.

Zer gertatu zitzaizen? Ba ia gehienean erantzuna sinplea da; kanpoko eraikinak eta artelanak izaki, urteen poderioz eta babestu gabe egoteagatik (faktore klimatikoen gehi gizakiaren eraginaren aurrean) guztiak biluzik geratu direla, zizelkatuak izan ziren materialaren kolore eta itxuran. Atenasko Partenoia eta orohar eskultura klasikoei dagokionean, gehienak marmol zurizkoak ditugu, Erdi Aroko eraikinei dagokienean berriz, kolorea, hareharriarena edo kareharriarena dute.

Zenbat arte jakitun erratu ote dira kontu honekin... XVIII. mendeko Neoklasikoak adibidez: eskultura klasikoak eredu harturik marmolaren biluztasuna goratzen zuten teoriak atera zituzten haiek. Bizi guztian zehar arte munduan lanean jardun izan zuten burutsu gehienak, hilobira joan ziren jakin gabe marmol zuri horiek polikromia zutela, ikusten zuten hura "ederra" izanagatik ere, artelana- ren ikuspegi osatu gabea besterik ez zelarik.

Izugarrria da koloreak eskultura bati ematen dion aldaketa. Eskulturak eta elementu dekoratiboez gain elementu arkitektonikoak kolorez jazeak ikaragarritzko indarra ematen dio eraikinari. Imaginatu eliz atari bat, gotikoa. Puntadun arkuetan kristo eta saildunen irudi zizelkatuak bata bestearen ondoan, dena beteta, harrizkoa, harri kolorea. Orain kolorea jarri, kolore mordoa, aurpegiak, ilea, arropa, etab., kriston subidoie!!

Gure buruetan margoa koadro eta ohialekin lotu izan dugu beti, baita egurrarekin ere



iosu salegi

Orain kolorea jarri, kolore mordoa, aurpegiak, ilea, arropa eta abar. *Kriston subidoie!*

erretauletako xafletan, eskulturetan eta abar. Elementu guzti hauek, historikoki tenplu erlijioso nahiz eraikin zibilen barruetarako eginak izan dira, beraz kolorea ikusteko barrurantz sartu behar da. Monumentuak, etxaurreak nahiz kanpoko irudiak kolorez beteak eta harrizko eskultura margotuarekin konposizio handietan ikustea bestelako kontu bat da, eta ez da erraza imajinatzea. Ikusitakoan soilik ohartzen zara polikromiak zenbaterainoko aberastasun eta bizitasuna eman diezaiokeen harrizko elementuei.

Guardiako Santa Maria eliza

Gehiena galdu bada ere badira salbuespenak. Urrutira joan beharrik gabe Guardiako (Laguardia gaztelera) XIV. mendeko elizatari gotikoa da horietako bat, XVII. mendeko polikromiarekin. Benetan merezi du. Aurretik

Gasteizera bueltatxo bat egin eta hango katedral bikaina (ez du kolorerik) bisitatzeak ere bai. Ondo bizi eta hurrengora arte!✳



‘Habemus Farsant’

Frantzisko I jesuita aukeratu berri dute martxoan, aita santu berri bezala, Jorge Mario Bergoglio argentinarra. Ez dut inolako harremanik elizarekin, baina hala ere ezin izan dut jakin gabe geratu mundu mailan albiste honek izan duen difusioa dela medio.

Eliza amildegian behera doan garaian, eta bizi dugun testuinguru sozial zail honetan, Erromako Aita Santu berriaren aukeraketak, elizak galdu duen oinarri soziala berreskuratzeko xedea du. Zergatik? Argentinarrak honek txiroen alde eta esparru sozialean itxuraz hartu dituen konpromezuek perfil freskoa ematen baitiote, gertuko pertsona, lagun urkoari laguntzeko ideia sakoneraino daramana... Elizaren inguruko eskandaluen eta ustelkeriaren gainetik kristautasunaren oinarriko baloreen ezpata daraman zaldun aurrerakoia bezala aurkezten zaigularik.

Elkartasuna, laguntza, maitasuna eta antzerako ideiak oso merke saltzen dira egun, herritarren bizimoduaren norabidea kolesterolez beteriko arteria baten odolak egiten duenaren antzerakoa denean; aurrera egin ahal duzun moduan, besteen gainetik bada ere. Honek eragiten digun kontzientzia karga oso astuna dela ez dago esan beharrik.

Ataka honetan aurkitzen den ororentzat zuzendu da Frantzisko-ren aukeraketa, “ez etorri Argentinatik hona, lagundu txiroak”, esatea bezalako keinuekin zerbait berria ekarriko duela salduz. Egitura ultra kontserbadore horretan, orde, ez dago aurrerakoirik, ez dira “berria” den ezer egiteko prest. Euren biziraupena, boterea, bermatzeko jendartearen sektore ahulenetara (zeina gero eta zabalagoa den) hurbiltzeko estrategia, politikariek kanpainan esaten dituzten gezurren moduko jokabide bat besterik ez da, hutsa, efimeroa, makilajea.

“Hurbildu gurera, jaungoikoaren mezua zabaldu, maitatu, lagundu...” mezu politikak, doinu argentinarraren gozoaz, baina hitzetatik ekintzetara pasatzean arazoak: “Con la igle-




||||||| **hodei mendinueta** |||||

||| **Balio antidemokratiko, zapaltzaile eta neoliberalen mezulari rola izango duelakoan nago**

sia hemos topado”, dio esaera zahar batek, beti harresiak, mugak jartzen. Ez dut honekin oinarria osatzen duten eta jaungoikoaren mezutik bizimodua egiten duten jendearen lana gutxietsi nahi, ezta gutxiagorik ere. Azken finean, besteengatik misioetan, janari bilketan, aterpea ematen bizi direnen ekintzek eta euren agintarienek mezua berdina izanagatik, ekintzetan bizi dira aurrenak eta eserita, meditazioan, besteak. EAJ-n gertatzen den antzerako.

Bestalde, lehen hegoamerikarra izatearen inguruan elkarbanatu nahiko nukeen irakurketa interesgarri bat egin zidaten aurrekoan. XXI. mendeko sozialismoa puri-purian dagoen herrialde hegoamerikarretan kristautasuna oso errotuta dago, espainiarren konkistatik. Etxekotzat har dezaketen Aita Santuak, Elizaren egiturekin bat datozen balio antidemokratiko, zapaltzaile eta neoliberalen mezulari rola izango duelakoan nago, herritarren parte hartzean oinarritzen diren sistema berriei bizkarra eman eta AE Ben politiken aldeko mezuak zabalduz. Kontuan hartzen badugu diktadura argentinarraren garaian herritarren alde egitea izan zuten beste aldera begiratu zuela... atera ondorioak.

Ea Loiolara ekartzen dugun saninaziotan, ez?✳



garraio publikoa Gipuzkoa



Pertsona guztien
mesederako tarifa
bateratuak.



Garraio-aldaketak
baldintza onetan.



Erabileraren araberako
deskontuak.



Talde bereziei
zuzendutako hobariak.

Mugirekin, zu irabazle

Gipuzkoako garraio publikoa bateratzen
duen sistema berria duzu.



Gipuzkoako Garraioak
Gipuzkoako Garraioak
Garraioak Gipuzkoa

Transportes de Gipuzkoa
Autobuses de Gipuzkoa
Transporte de Gipuzkoa

i 943 000 117

www.mugipuzkoa.com


euskaraz bizi nahi dugu

euskaraz
bizi
nahi dut



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEAK
KONTSEILUA

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Oharrak euskaraz.

Bejondeiola erakuslehioan ohar hau euskara hutsean jartzea erabaki duen saltzaile honi. Urrats ederra euskararentzat! Uztarria

**BEHERA.** Mauka ederra, gaztelania hutsean.

Norbere poltxikoari begiratuta, pagotx ederra litzateke pintore honek egiten duen eskaintza. Kartel guztika, ordea, erdara hutsean izatea penagarria da! Uztarria*



Nikolas Segurola.

ESANA DAGO

“Lehen gehiago kostatzen zitzaidan etxean egotea orain irtetea baino”

NIKOLAS SEGUROLA
Artzaina eta
Arantzazuko fraidea

“Gau Txori argazki rallya oso berezia da niretzat”

JULEN JUARISTI
Argazkilari afizionatua

“Quebrantahuesos proba garrantzitsua da eta aurten, lehen 25 postuetan egiten dutenek munduko kopako txapelketa jokatzeko aukera izango dute. Zaila dela badakit, baina hori da nire nahia”

JOSEBA ALBIZU
Txirrindularia



kutxa



Ke beltza

Zuk orain badakizuna nik oraindik ez dakit. Zuk hau irakurtzean badakizuna nik hau idazterakoan ez dakit. Zuk Aita Santu berriaren berri baduzu, nik, hizkiak josten ari naizen une honetan, ke beltza ikusi berri dut. Modan ez badago ere, kristaua eta fededuna naizela aitortzeko arazorik ez dut. Zergaitik naizen galdetzen badidazu, agian erantzun argia ematea kostatu egingo zait. Gurutzean hiltzatu zutenak zabaldu zituen printzio eta baloreetan oinarritu nahi nuke nire eguneroko jokabidea. Zientzia hotzak ipuintzat dituen kontu horiek ez naute arduratsen. Nahi dudana bezala bizitzeko gai banaiz, hil ondo-

ren, izan beharrekoa izan bedi, izan ustela izan fina.

Ni ez naiz inor zure etxean sartzeko, ni ez naiz inor zuen portaera epaitzeko. Ezin dut harririk jaurti, pekatari osoa eta konpletoa naiz. Arrazoien ordeztu aitzakiak erabiltzen ditut. Zeru urdina urrun daukat, infernu gorria gertu. Inorentzat adibide eta eredu ez naizenez, txoko honetan nire barruak duena argitaratzeko neure buruarekin nahiko borroka izan dut. Barrua hustutzea erabaki dut. Elizaren printzeak elkartu dira denon artzaina aukeratzeko. Bat izan ala bestea izan, axolarik ez. Errespetu osoz esanda, mozorrotuta elkar-



|||||||txetxu urbietak|||||||

tzen diren mutil zaharren erabakia ez zait bategarria egiten. Elizak erabateko iraultza behar du, behetik gora eginiko aldaketa sakona, gurutzean josi genuen agindutakoa zintzoki jarraituz. Haren, edo bere aitaren, hamar aginduekin nahikoa dugu. Akabo pekatuak, mehatxuak eta beldurrak.

Sermotxo honekin neure burua zuritu dut, aitzakia bat gehiago ezer ez egiteko. Eskerrak ni baino finago lanean ari diren milaka lagun esker iraultza lortuko den. Paradisuaren zain egon gabe, mundu petral honek ere lagun zintzoen bizileku izan behar du. Ez izan dudarik.*

|||IKUSTEKO|||



▲ZURIA ETA BELTZAREN NAHASTEA BETI GRISA EZ DENEAN.

Uztarriaren irakurle batek bere baserrian jaio berri diren katakumeen irudi hau bidali digu. Amaren babesean lau katakume; bata beltza, beste hirurak elurra bezain zuriak. Ez da aurreneko aldia katu horrek umeak izan dituela, baina harrituta daude etxeokak jaio berrien ilajearekin. Zalantzarik ez dago katarren kolorea zein zen. 🐾 Uztarria*

||| MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... |||



|||||maite garmendia|||



Emakumeen eguna

MARTXOAREN 8A. 1911ko martxoaren 8an lehen aldiz izan omen zen Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suedian. ONUk 1977an emakumeen eskubideen nazioarteko eguna izendatu omen zuen martxoaren 8a. 2013an emakumearenaganako biolentzian fokatu du eguna. Noiz arte "ospatu" behar dugu emakumeak eskubide gutxiagotuak izatea?



Korrika 2013

EMAN EUSKARA ELKARRI. Laistrekan, antxintxketan, arineketan, korrikan... bukatzen ez den bidea... bukatu behar ez duena. Korrika hankekin. Korrika ahoarekin. Korrika buruarekin. Korrika bihotzarekin.



Madalenako ospitale zaharra

ALTXOR TXIKIA. Bostehun urte betetzear zen altxor txiki hori erortzeko zorian ikusten genuen Lasaora paseatzera abiatzen ginenean. A zer nolako poza eman didan Madalenako ospitala zaharberritzen ari direla ikusteak. 1520rako martxan omen zen garaiko gaixoak arta-

tzen zituen ospitala. (garaiko Osakidetza?). Utzikieraren ikur bilakatua. Nazioartean Azpeitian eman duen Loiolako Inazoren mailako pertsonai historiko baten aztarnak merezi zuen hori. Azpeitiar denak aberatsago egiten gaituelakoan nago.✕

INKESTA

sanjose Lorak
jan al dituzu
inoiz?

Ainitze Agirrezabala

KARMEL GARMENDIA

69 urte



"Etxean hala esaten zuten amamak eta aitak, sanjose lorak

osasunarentzat ona zirela. Mutil koskorretan, Komuntzo aldera joaten nintzen perretxikutara, eta bidean sanjose lorak jaten nituen, marrubiak balira bezala. Gero, 14-15 urtetik aurrera, orduan ikasi nuen zer zen ona eta harrezkero txuleta nahiago nuen. Orain ere jango nituzke sanjose lorak, baina entsalada eder bati nahastuta".

MIREN ARREGI

13 urte



"Bai. Loiola aldean baserria dugu, eta inguru horretan asko paseatzen

dut giurasoeekin. Behin, amak kontatu zidan sanjose lorak jatea ohitura zaharra zela. Orduantxe probatu nituen aurreneko, baina geroztik ez ditut sekula gehiago jan. Beldurra ematen dit, izan ere jendeak edozein bazterretan egiten du pixa, eta zikinak egon daitezke".

MAITE ARZALLUS

13 urte




"Jaten direla, bai, banekien, baina neuk ez dut sekula probatu.

Aita eta anaiarekin mendira joan nintzen batean haiek jan zituzten, baina niri beldurra ematen dit, osasunean kalte gogoal egingo didate-eta".

Bide okerraren alde!

Steve Jobs-ek beti esaten zuen unibertsitatea uztea bere bizitzako erabakirik onena izan zela. Bere gurasoek matrikula ordaintzen sekulako dirutza gastatu ondoren, sei hilabetera dena uztea erabaki zuen Macintosh-aren sortzaileak. Lurretik hartutako koka-kola latak birziklatze zentro batean salduz bizi-raun zuen hala moduz. Denbora librean, tipografia ikastaro batean hasi zen. Hark eman zizkion, komunikazio estrategia onenak garatzeko oinarriak bate-tik, eta tipografiarekiko jakinmina bestetik. Ez zen inoiz informatikari trebea izan, baina marketing es-trategiak bikain baliatu zituen. Lizentziatu gabe ego-nagatik, munduko aberatsenen artean amaitu zuen, herioren segak kontu korronteari kasurik egin ez ba-zion ere.

Aurreko batean Oskar Alegria nafarraren "Emak Bakia" filma ikusi eta bere hitzak entzuteko aukera izan nuen. Zioenez, bere pelikula dokumentala itsasoan isurtzera doan ibaia bezalakoa da, "gertu



yuri agirre

egonagatik etengabe kurbak hartzen dabil, itsasora iristeko presa gabe". Gai zentrala Man Ray zinegile zaharraren Biarritzeko etxearen araketa bada ere, ikerketan zehar behin eta berriz desbideratzen da, etengabe bitxi berriak aurkituz.

"Zorte ona, akatsaren lehengusua da", dio zine-magile nafarrak. Steve Jobs-ek ere, entzungo balu, arrazoi emango lioke. Penizilina eta txanpaina ere akatsen ondorioz sortu zirela gogoratzen du Ale-griak. Kalimotxo bera ere, pasatutako ardoa edan-garri egiteko koka-kola gehitu ziotenean asmatu zu-tela dio mitoak.

Xoxotera igotzean bezala, bide motzena, zuzenean tontorrera doan hori, ez dut uste onena denik. Hanka sartzean aurkitzen ditugu sarri lokatz artean gordetako altxorrik onenak. Galtzea, zerbait berria aurkitzearen sinonimo baita.

galdetzen hasita, kotxeei aparkatzea debekatu eta noizko oinezkotuko dute plaza nagusia? Uztarria

Biziaren Pazkoa

Antzinako hebrearrek udaberriko lehen ilargi betean ospatzen zuten euren jai nagusia: nekazari-ek legamiarik gabeko ogi berria errez; artzainek lehen bildotsa elkarrekin janez. Biziaren oparia eskertzea eta bizi berria ospatzea: horixe zen Pazko jaia.

Handik mende askotara, biziaren jaiari gertakari historiko baten oroitzapena lotu zioten: nola euren asabak, Moisesen gidaritzapean, faraoi ankerraren uztarria hautsirik, esklabutzatik askatasunera igaro ziren basamortuan zehar, lurralde berriaren espe-rantzak bultzaturik. Hain juxtu, pazko hitzak 'zehar-katu' esan nahi du, 'igaro'. Biziak bezala.

Handik mila urtetara, Nazareteko Jesus agertu zen, eta on eginez igaro zuen bizitza: zapalduen as-kapena iragarritz, zaurituak sendatuz, den-denen mahaikide bilakatuz inor baztertu gabe. Horregatik hil zuten: ez dezala inork pentsa gizateriaren erruak ordaintzeko hil zela, 'Jainkoaren' erabakiz.



joxe arregi

Garai berri baten profeta eta egunsentia ikusi zuten askok Nazareteko Jesusengan. Eta hain bide-gabeki eta gazterik hil zutenean, haren jarraitzaile askok aldarrikatu zuten ez zegoela hilda, bizirik bai-zik, ematen den bizi ez baita hiltzen. Ematen den bizi 'Jainkoaren' bizi da. Areago, 'Jainkoa' bera da. Zer da 'Jainkoa' Biziaren, Errealitate osoaren onezko Bihotza baizik? Zer da Pazkoa bizi onaren zori unibertsala baizik?

Hori ulertzen erraza da. Handik mendeetara, ordea, sekula gertatu gabeko gertakari bitxi, 'mirari-tsu' eta konplikatu bihurtu zuten teologo kristauek: gorpua 'zerura joatea', hilobia hutsik geratzea, Jesus hilaren agerpen fisikoak ikustea...

Hasieran ez zuten horrelakorik pentsatu, eta gaur ezin du horrelakorik inork sinetsi. Gatozen, bada, berriro Pazkoaren muinera: Bizi ez da hiltzen, hila-bi guztiak hutsik daude, gurutze guztiak baino ahal-tsuago da Gupida. Eta Jesus da irudi bikaina.

Loreak

Azken aldian, balkoiak erabiltzen ditugu aldarrikapenak egiteko, festak ospatzeko, eta abar. Hor ikusten ditugu "Euskal presoak Euskal Herrira" lema daukaten izara zuriak; Gaztelaniaz argitaratzen den egunkari bat erostearekin banatzen zuten trapu zuri-urdina; Udaletxeak banatu eta jendeak San Sebastian egun inguruan jartzen duen maindire zuri-urdina... Birziklatu daitekeen materialez beteta dauden zabor-poltsak ere agertu zaizkigu inguruko hainbat herritan.

Lehenago egunean, aldiz, Aberri egunean, balkoietan ikurrin gutxi zegoela iruditu zitzaiz-

dan. Duela hogeitaka urte ikurrin mordoa egoten zela gogoratzen dut. Debekuaren ostean jendearen nahia adierazteko modua zen, jendeak nolako etorkizuna nahi zuen irudikatzeko, aldarrikapenak egitekoa.

Gaurko balkoiak ikusita, ematen du aldatu egin direla jendearen ametsak, eta erraza da txiste txarrak egitea: "orain zaborra da gure aberria", "Erreala da gure aberria", "presoak erreala dira", "erreala da zaborra", "ikurriña zaborra da", eta abar. Nahi adina konbinazio, nahi adina interpretazio, nahi

ñaut frantzesena

adina txiste txar. Hala ere, gaur egunean ere gure nahiak adierazten jarraitzen dugu balkoian, etorkizuna irudikatzen, aldarrikapenak egiten.

Etorkizuna irudikatzen zuten beste hainbat trapu ere ezkutatu dira balkoietatik: garbigailutik atera berriak egoten ziren buzo laranjak. Agian balkoietatik zintzilik jarri beharko lirake, etorkizuna dagoela esateko, aldarrikatzeko, jendea ahaztu ez dadin.

Urteak dira nire balkoiko geranioak ihartu zirela; Jarri egingo ditut aurten. Eta zaindu, egunez egun.✱




The Sugarballs

2008an sortutako talde hau bost azkoitiarez osaturik zegoen: Julpu (ahotsa), Pittor (gitarra), Gontxalo (gitarra), Jontxu (Baxua), Uso (bateria) eta Itzi (teklak). *In cloudy days we shine* beraien lehen diska, 2009an grabatu zuten, Lobo estudioetan.

Diska Rock 'n Roll klasikoan oinarrituta dago. Itziren hammond doinuek asko potentziazten dute klasikotasun ukitu hori. Bestetik, taldean bi gitarra egoteak, abestiei izugarritzko indarra ematen die, baita hauek sortzen dituzten riff Rock&Rolleroei esker ere. Ahaztu gabe, bateriak eta baxuak konpas perfektuan osatzen duten baseak dena borobiltzen du.

Diska autoekoiztutako hamar abestik osatzen dute, baita "bonus track" izenpean ezkutatzuten duten bertsio eder batek ere.

KRITIKA
'In cloudy days we shine' diska



Disketxea. Autoekoizpena.
Argitalpen urtea. 2010.
Abesti kopurua. 11.
Ezaugarria. 2012ko abenduan eskaini zuen taldeak bere azken kontzertua.

Abestiak ingelesez daude eta indarra, doinu askatasuna eta giro aparta transmititzen dute.

Diskoko abesti guztiak gustuko ditut, eta bat aukeratzea zaila izan arren, *Before I die* eta *Silence is a dangerous sound* abestiak dira, bereziki, nire gustukoak. Bai abestietan ematen den mezuegatik, bai horiek duten melodi itsaskorregatik.

Lehenengo aldiz talde hau entzun nuenean, 60ko hamarkada etorri zitzaidan burura, garai haietako giroa, dantzak, arropak... Beste taldekideekin batera, Julpuren ahots bereziak, garai haietara eramaten zaitu.

Bere ahotsa perfektua da musika mota honetarako, dituen hainbat ezaugarri esker. Hala nola, ahotsaren kolorea, horrek duen ikaragarritzko potentzia eta

berak eranstean dion sentimendu rockeroa.

Gaur egun, modak nondik jotzen duen halako musika mota egiten den arren, The Sugarballs-ek berriz ez. Egungo modei paro egin gabe, beraiek sentitzen dutenean sinetsi eta horrelako lan bikainak egiten dituzte.

Talde honek duen pena bakkarra, 2012ko abenduan beraien azken kontzertua eman eta The Sugarballs proiektua bertan behera utzi izana da.

Espero dugu noizbait berriro elkartu eta *In cloudy days we shine* bezalako lan gehiagorekin etortzea. Ez da Euskal Herri mailan egiten den musika estilorik ohikoena, baina poztasun handia ematen du Urola inguruan horrelako Rock 'n Roll talde original bat eduki izanak.✱



ane bastida

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

Aiertza Autoak
CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

HAU HOLAXEENK



**Ignacio
Zuloaga
Institutua** Eibar



Ate irekien eguna

Apirilak 17

Ordua 18:00

ARTE BATXILERGOA A eta D ereduetan

Jardifneta 3 Eibar . Tel.: 943208349 . Fax: 943206048 www.ignaciozuloaga.net E-mail: 012055aa@hezkuntza.net



Koloreen paradisua

Norvegiako paisaiak nahiz fenomeno naturalek edozein bidaiari liluratuta uzteko ahalmena dute.

Argazkilarien paradisua da, inondik ere. 📷👁️ Ainara Garcia



▲ **AURORA BOREALA.**

Munduko oso leku gutxitan suertatzen den fenomeno naturala da. Neguko gau luzeetan, ipar zirkuluko lurraldeetako zeruak dantzan ikusteko aukera dago.



► **ELUR OREINA.**

Norvegian gehienetariko bat ikusten den animalia da. Orokorrean, zintzoak diren arren, kontuz ibili behar da, batez ere errepidean gidatzen goazenean, sarritan edozein zirrikitutatik irteten baitira.



▲ KANPAMENDU SAMIA.

Samiak, orain dela urte askotatik Laponian zehar bizi diren indigenak, ehiza egitetik, arrantzatik, abeltzaintzatik eta artisautzatik bizi dira.

► BAKEA.

Estresik gabeko lekurik baldin badago munduan, hauxe dela esango nuke. Begiak itxi eta uraren hotsa besterik ez da entzuten, eta paisaiaren erdian, erabateko harmonia sentitu daiteke.



▼ EGUERDI

Norvegiako negua aukera dago, eta ezkutatu gabe jarri egunsentia eta ardoaz. Argazki hau baino lehen ateratu



▲ ITSAS-BIZITZA ABERATSA.

Ur ertzetik mugitu gabe, norvegiar itsasoan sekulako bizitza dago. Itsas izarrak, mota guztietako hegaztiak, arrainak, eta zorte gehien dutenek, baleak ere ikus ditzazkete.



KO ARRATSA.

an, arratsa eguerdian ikusteko
udan, berriz, gauerdian eguzkiak
raitzen du. Modu honetan,
ratsa bat bestearen jarraian
zehazki eguerdiko 14:00ak
takoa da.



▲FIORDOAK.

Lurraldearen berezitasun garrantzitsuenetakoak dira. Iparraldetik hegoalderaino uhartez josita dago Norvegiako itsasertza, fiordoak osatuz. Batetik bestera joateko, ferrya erabili behar da, edota zubiak nahiz itsas azpiko tunelak zeharkatu behar dira.

▼EGUNSENTIKO ARGIAK.

Norvegia argazkilarien paradisua izatearen arrazoia, beste inon aurkitu ez daitezken argiak dituelako da. Otsailean, eguzkia irtetean bi ordu baino gehiagoko egunsentiak daude eta zeruak batzutan sua dirudi denbora guzti horretan.



VALENTIN BENGOA

jesuita eta sindikalista

“ELAren birsortzean, nik Lagundu besterik ez nuen egin”

Bere baitako jesuita edo sindikalista, zer sortu ote zen lehenago? Biak ditu bidelagun, eta bietako inori ez dio erretiroa eman oraindik. 📝📷 **Ihintza Agirretxe**

Hanakak ma-kalduta baditu ere, burua eta mingaina bizi mantentzen ditu oraindik Aretxabaletan sortu eta Loiolako Santutegian bizi den jesuita honek. Hiru aberri ditu: Aretxabaleta, sorterrria; Nikaragua, lotura estua duen herrialdea; eta Loiola, azken 50 urtetik gora duen bizitokia. Eta bi bizimodu batean: jesuita eta sindikalista. ELA sindikatuan aritu da lanean urte luzez. Orain ere harreman ona eta handia du bidelagun izan dituenekin, sindikalgintzatik bat ez baita erretirutzen.

Ez du protagonista izan nahi, behin eta berriro dio, ELAren berpizkunde garai hartan egindako lanaren protagonistak beste batzuk direla dio, berak, lagundu besterik ez zuela egin. Uztarriak, protagonismoa alde batera utzi, eta bere historia eta istorioak kontatzeko eskatu dio. Milaka istorio ditu, milaka datu, hemen bakan batzuk bildu ditugu.

Aretxabaletan sortua zara, orain dela 90 urte. Baina zein girotan hazi eta hezi zinen?

Gure familia, familia normala zen.

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1923ko abuztuak 20.

||| **Herria.** Aretxabaleta.

||| **Bizi tokia.** Loiolako santutegia.

||| **Lanbidea.** Jesuita eta sindikalista.

Langilea, eta oso kristaua. Etxe aurrean Beroa lantegia genuen. Niretzat hori oso garrantzitsua izan zen. 100dik gora langile izango zituen, garai hartarako lantegi handia. Aluminio lantzen zen fabrika. Nire mundua langile mundua izan zen, beraz, oso txikitatik. Goizean langileak bizikletan fabrikara sartzen ikusten nituen, si-

renak jotzen entzuten nituen.... Nik uste langile giro horrek asko markatu ninduela. Aitak ere lantegi horretan egiten zuen lan. Eta amak, etxeko lanak egiteaz gain (zortzi lagun bizi ginen etxean), lantegirako lanak ere egiten zituen. Etxean amak eta biok kafea kolatzeko txinoak montatzen genituen.

Beraz, sortu zinenetik bizi izan duzu langile mugimendua.

Bai, garai hartan, langile mugimenduko giroa bazegoen, eta etxetik bertatik hasi nintzen langi-

le mugimendura gerturatzen. Aita ere ELAn ibiltzen zen zerbaitetan, eta hari laguntzen hasi nintzen, lehenengo. Askotan gogo handiegirik gabe eta amorratuta, baina etxean erreziboak egiten laguntzen nion aitari. Gero etxe aurreko garaje batean bilera deiak-eta jartzen zituzten, eta mugimendu horretaz kontzientziatzeko unerik garrantzitsuenak izan zen, Errepublikara garaia zen eta eskubide borroka eta grebak izaten ziren.

Gazte zinela oraindik, Gerra Zibila bizitzea tokatu zitzaizun.

Bai, Aretxabaletako eskola publikoan ikasketak egin eta Durangoko jesuiten eskolara joan nintzen, urtebetez. Ikasturte bat egin han, oporrak hartu eta Gerra Zibila hasi zen. Ondorioz, urtebetez ikasketetan jarraitu ezinik gelditu nintzen. Eta oraindik gerra zela Jabierara joan nintzen jesuiten ikastetxera. Han bi urte egin eta jesuita sartu nintzen.

Gerra garaian, 12-13 bat urte izango nituen, eta adin horretan, joko moduko bat zen gerra guretzat. Gero ikusten genituen hildakoak, jendea tirokatzen, eta horrelakoetan ohartzen ginen ez zela jolasa.

Noiz erabaki zenuen jesuita izan nahi zenuela, edo erabaki al duzu inoiz?

Gauza batzuek ez dira inoiz erabakitzen. Gure familia oso kristaua zen. Ama kristau zentzuduna zen, eta oso serioa, gainera. Guk giro hori normal bizi izan genuen, eta, egia esan behar badut, ez dakit noiz erabaki nuen, edo inoiz erabaki dudan. Garai hartan oso ohikoa zen jesuita, fraile edo moja sartzeara. Familiak aurrera ateratzeko modua ere bazen, joaten ginen ikastera, eta gero batzuk etxera bueltatzen ziren, eta beste batzuk bidea jarraitu genuen.

Zuk jarraitzea erabaki zenuen, eta jesuita egin Jabierren, eta Loiolara etorri zinen.

Jabierren ikasketak bukatu, eta jesuita sartu nintzen zuzenean,





Loiolara. Jesuitak orduantxe etorriak ziren Belgikatik, urtebete lehenago edo. Orduan jende gazte pila bat zegoen hemen. 60 gazte ginen nobiziatuan. Hemen bi urte egin nituen, ondoren beste bi urte klasikoak ikasten pasatu nituen, gero hiru filosofia ikasten, eta ondoren, Ameriketara, Nikaraguara, joan nintzen, ikastetxe batera irakasle.

Orduan ohikoa zen, kanpora joatea?

Bai, pentsa, gu guztira 29 jesuita ginen Ameriketara eramane gintuen ontzian! Pentsatu zenbat joaten ginen. Nikaraguan 3 urte egin nituen eta beste urtebete Venezuelan. Bueltan teologia ikasi nuen Burgosen beste 4 urtez. Teologiako hirugarren urtean nintzela apaiz egin nintzen, eta beranduago egingo nuen azken urtea.

Izan ere, apaiz egin ninduten egunean bertan, nagusiak deitu eta 15 egunera Afrikara joan behar nuela esan zidan. Tetuenera (Maroko) bidali ninduten kapilau militar. Guk ez genuen soldadutza

egin beharrik izaten, baina kapilau militarrek behar zituztenean deitu egiten gintuzten, eta joan egin behar. Han bi urtez izan nintzen. Bueltan egin nuen teologia-ko azken urtea. Ondoren, beste urtebetez formazioko azken urtea egin nuen. Eta handik Loiolara etorri nintzen, eta ordutik bizi naiz hemen.

Nikaraguan hiru urteko egonaldia egin zenuen. Baina garai horregatik baino gero- ra ekarritakoagatik izan da garrantzitsuagoa zuretzat.

Bai, lehenengoz joan nintzenean ikastetxe batean, barnetegi batean egon nintzen irakasle. Nik egundoko pobrezia zegoela ikusten nuen handik kanpora, baina ikastetxera etortzen ziren haiek aberatsak ziren.

Kontraesanak sortuko zitzaizkizun ba...

Bazegoen erresistentzia moduko bat han bertan ere. Somoza diktadorearen garaia zen, eta aberats asko haren kontra zauden. Hala ere, hori izan dudana kontraesan txikiena izan zen! Barruan,

gerora, izan nuena askoz handiagoa izan zen.

Noiz sortu zitzaizun ba barruko zera hori?

Batez ere eramateko zaila egin zitzaidan arazoa izan zen. Ameriketatik bueltan, frankismo garaia zen hemen, eta erregimen horren kontra eta sindikatu kontuan hasi nintzenean, nire formazioa, batez

“EZ dakit noiz erabaki nuen edo inoiz erabaki dudana jesuita izatea”

“Barruan nuen arazo guzti hari nikaraguan biLatu nion erantzuna”

ere teologia, mugimendu horiekin ezkontzeko zaila zela ohartu nintzen. Teologia Europarra eta kontserbadorea zen nik jasotakoa. Langile borrokak, klandestinitatea.... zailak egiten zitzaizkidan

saltsa horietan egiten nituenak eta nire jesuita izaera lotzea. Nire formazio horrek batez ere kontzientzia lantzen zuen, eta hori izan zen zailena. Soluzioa geroago bilatuko nuen.

Hego ameriketatik bueltan, ikasketak bukatu eta Loiolan jarri zinen bizitzten.

Bai. Orduan etorri nintzen nintzen Loiolara, aurretik denboraldiak eginda banengoen hemen. Garai hartan eguna Azkoitiko Eskola profesionalean pasatzen nuen. Madinabeitiak eta biok sortu genuen, sortze lanetan ibili nintzen, eta gero ere, goizetan klaseak ematen nituen. Baina nik lan gehiago Azpeitian, gazteekin egiten nuen. Eliza inguruko elkarteak gainbehera zihoazen: luistarrak, mariaren alabak, koskak, Goretiak... eta hor zegoen nire lana. Gazte guzti horiekin elizaren inguruan lan egitea zen nire hasierako egin beharra.

Horiekin zer egin behar zenuen.

Eliztar onak izateko zerbait egitea zen nire zeregina, baina hori dena

gainbeheran zegoen. Eta orduan, pentsatu nuen momentu berrirako eta mundu berrirako horiek zer bait sortu zitekeela. Ez nekian juxtu zer irtengo zuen, baina lanean hasi nintzen. Talde ezberdinak antolatu genituen, euskal kultura, emakumeen promozioa edo feminismoa, sozial politika... Gai ezberdinak lantzeko taldeak sortu genituen. Bakoitzak aukeratzen zuen zein gaitako taldean hartu nahi zuen parte.

Astean bilera bat egiten zuen talde bakoitzak, eta talde bakoitzean 10-15 lagunek hartzen zuten parte. Hortik hasi ginen, frankismoa pixka bat etsitzen hasita zegoen, gutxi, eta horiek egiteko ez genuen arazo handiegirik. Hori ez baitzen klandestinitatean egin behar.

Hortik, beste pauso garrantzitsu bat ematea ere erabaki genuen, eta garai hartan modan zeuden eskola soziala sortzeari ekin genion. Horra, hasieran behintzat 100dik gora lagun joaten ziren.

Zer helbururekin sortu ziren lan talde horiek?

Talde horien helburua gai ezberdinen inguruan kontzientzia sortzea, eta zenbait gairen inguruan lanketa eta hausnarketa egitea zen. Nik hor gidaritza lana egiten nuen, zertaz hitz egin behar zuten-eta azaltzen nien, eta jarraitzea egiten nuen. Baina beste zer bait egiteko gogoia ere sortu

zitzagun, eta Azpeitia ez zen egokiena munduan zer gertatzen zen jakiteko, normala den bezala. Garai gogorra zen hura. Gerra egin zutenek, ez zuten horretaz hitz egin nahi. Eta orduko gazteek ez zuten beren gurasoek jasan-dakoa ezagutzen. Talde bat sortu genuen jendea ekartzeko, eta haiek munduan zer gertatzen zen azaltzeko, betiere gai sozialak azaltzen zituzten. Asteburuetan egiten genituen mintegi moduko horiek. Mintegi horien antolaketa zela eta, Donostiako ELAren lehen kontaktuak izan genituen.

Hortik, beraz, ELAren berriro lotura.

Beraiei ere interesatzen zitzairen guregana etortzea, gazte asko mugitzen baitziren gure inguruan. Hortik sortu zen kontaktua eta hasiera. Niretzat, gainera, nire katea ez eteteko bidea aurkitu nuen, izan ere, nire haurtzaroko eta aitaren kontuak beti hor izan nituen. Denbora askoan egon nintzen aitari ezer kontatu gabe, ez kezkatzeko. Behin Franko hil zenean kontatu nion zertan nenbilen.

Eta lotura horretako protagonista...

Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako neska eta mutil gazte asko izan ziren mugimendu hartako protagonista. Hasierako talde horiek ez ziren klandestinoak, baina hortik sortu zen ELAko hasierako talde hori, frankismoak iraun zuen

bitartean klandestinoak izan zen. ELA sindikatuaren birsortzean, Azpeitian inplikazio handia zegoen; nik sorrera horretan, lagundu egin nien, eta formaziorako liburuak itzuli, eta gauzak bilatzen nituen.

Nola uztartzeko zenituen klandestinitatea eta zure jesuita izaera.

Klandestinitate kontua baino pentsaera kontua gehiago izan zen. Langile munduan, gerra garaian ere apaizak oso sartuta izan ziren, baina ez zen garai hori jada, eta ez zen gaur egungoa ere. Gazte talde haietatik ELA birsortu, eta klandestinitateko lanean hasi ginenean, ardura bat gehiago sortu zitzaidan. Izan ere, gazteak lan klandestinoan pasatzen zirenean, beren borondatez, noski, azkenean ardura nirea sentitzen nuen.

Niri horrelakoetan arinkeriaz jokatzerik ez zait gustatzen; niretzat pertsona bat pertsona bat da, eta gazteak libreki erabakitzen zuten non sartu, eta klandestinitatera sartu edo ez. Beste arazoa zen, langile mugimendua erradikalizatu zegoela.

Arrupe ere ez zen hemen, eta askapen teologia sortu gabe zegoen oraindik. Teologia kontserbadorea genuen, bai nik eta inguruan ere horrelakoxea zen. Eta hori gairaditzeko bidea bilatzea ez zen erraza izan.

Eta non bilatu zenuen giltza?

Nikaraguan egindako 3 urteko egonaldi hartaz gain, ondoren ere joaten nintzen, eta banituen, eta badut, harremana hango lagunekin. Han, Sandinismoa mugitzen hasi zenean, jesuita asko mugimendu hartan sartuta zeudela ikusi nuen, eta ordurako askapen teologia ere sortzen edo mugitzen hasita zegoen. Teologia berri bat zen zeharo. Eta barruan nuen arazo guzti hari erantzuna bilatu nion.

≠Niretzat jesuita izaera horrek eta egiten nuen lanak sortzen zitzaizkan kontraesan horiek uztartzeko bidea aurkitu nuen.

Asko ikasi duzu Nikaragutik, beraz?

Izugarri. Gainera, han ezagutzeko aukera izan nuen jesuitak balio handikoak izan dira. Oso onak, eta askapen teologian oso sartuta zeudenak ezagutzeko aukera izan nuen.

Nire ikasle izandako batzuekin gerora ere harremana mantendu dut.

Nikaraguan bilatu zenuen bidea, baina hemen ulertaraztea erraza izan al zen?

Arrupek arlo horretan gauza asko aldatu zituen. Hark bazterrak mugitu zituen, eta ni bezala zoro bat inguruan izatea hain txarra ez zela ulertu zuten nire ingurukoek (barez).✘

SEGUROS BILBAO
www.segurosbilbao.com

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:
 -ETXEBIZITZAK
 -AUTOAK
 -DENDAK
 -PERSONALAK eta abar.
 AURREZTEKO PRODUKTU INTERESGARRIAK.
 BAITA AURREZKIENTZAKO ERE.

Joxe Migel Muguruza (Urola Erdiako agente eksklusiboa)
 Telf: 652.776.909 | jm.muguruza@segurosbilbao.com

DI-DA

diseinua
 zure lorategi edo terrazara diseinua
90€ren truke
www.kimubat.com




Kimubat

Bestelako agurra

Elizatik pasatu gabe, azken agurra bide zibiletik egin nahi duten herritarrek badute horretarako parada, Udalaren hainbat aretotan. 📌📍 Ainitze Agirrezabala

Mendi gainak eta itsas bazterrak dira batzuek betikotasunean bizitzeko aukeratzen dituzten lekuak, arrazoi sentimentalak edo estetikoak tarteko. Beste askok, orain arte ohikoa izan den moduan, hilerrian hartzen dute atsedena. Azken portura iritsi aurreko pausoa elizatik ematea da oraindik orain eta gure inguruan gehien ematen dena. Hala ere, pauso hori bide zibiletik egin nahi duenak horretarako aukera badu Azpeitian. Hileta zibilak gune publikoetan egitea baimentzen duen ordenantza onartu zuen Azpeitiko Udalak, 2010eko otsailean. Hala, araututa gelditu dira berauek egiteko baldintzak. Hiletez gain, omenaldiak egiteko ere onartu da arautegia.

Uztarriak jakin duenez, ordenantza onartu zenetik bi hileta zibil egin dira herrian eta haietako baten alargunarekin hitz egin du, esperientzia gertutik ezagutzeko asmoz.

Arritxu Aristondo iazko urtarilean hil zen, minbizi azkar baten ondorioz. Jose Mari Nuñez alargunaren esanetan, “elizarekin ez dugu bat egiten, eta Arritxuk ez zuen nahi elizatik pasatzea, ez eskelarik jartzea. Kontu horri guztiari ez genion zentzurik aurkitzen”. Nuñezek kontatu duenez, emaztea gaixotu baino hilabete batzuk lehenago, haren bi osaba hil ziren Zarautzen eta haiei hileta zibila egin zieten. “Zeremonia oso polita izan zela komentatu genuen elkarrekin; beraz, kasualitatez-edo, hitz eginda genuen”.



Sindikatu Zaharreko eta Baigerako hainbat areto, Soreasu antzokia eta Urrestillako Ibaigain jubilatuen egoitza hileta zibiletarako erabiltzea aztertu nahi du Udalak.

Eskelarik ez zuten argitaratu, eta "jendea harritu egin zuen horrek; hileta noiz zen galdetzen ziguten". Emaztea hil zen astean joan ziren udaletxera, hileta zibila egiteko areto eske. "Hileta zibilik ezin zela egin esan ziguten; izateraz, omenaldia. Sindikatu Zaharrean hiru gela erakutsi zizkiguten, eta guztietan handiena aukeratu bagenuen ere, hileta egunean txiki geratu zen, oso txiki".

Eskaintza zabaltzea xede

Gaur gaurkoz, Udalak hileta zibiletarako Betharrametako beheko solairua eskaintzen du, baina Aritz Epelde zinegotziak jakitera eman duenez, ordenantza hori aztertzen ari dira, hileta zibilak egiteko aukera Udal-eraikin gehiagotara zabaltzeko. "Sindikatu Zaharreko eta Baigerako hainbat areto, eta Soreasu antzokia eta Urrestillako Ibaigain jubilatuen egoitza hileta zibiletarako erabiltzea aztertu nahi dugu, eta dagoeneko gai hori batzordean aztertzeko gai-zerrendan dugu".

Carmona Ehorztetxeko Antonio Carmonak adierazi duenez, gaurdaino beraiei ez zaie

egokitu hileta zibilik antolatzea. "Beno, gogoa dut duela 25 bat urte, Euskadiko Mugimendu Komunistako kide bat elizatik pasatu gabe eraman genuen hilerria, eta han bertso batzuk abestu zizkieten".

Emaztearen azken-agurra antolatzea "pixka bat gogorra" egin zitzaioala aitortu du Nuñezek. "Une latzak dira oso, baina familieren aldetik laguntza handia izan nuen eta harro esan dezaket gustura geratu ginela, Arritxuk merezi zuen agurra jaso zuelako".

20 minutu inguru luzatu zen erritua. "Oso hunkigarria izan zen, baina ez genuen nahi izan kutsu tristea hartzerik. Zapi batekin apaindu genuen mahaia, eta errautsak eta Arritxuren argazkia present egon ziren, lore batzuekin. Haren izaera egoki islatzen zuen eskutitz bat irakurritz hasi genuen agurra. Iloba batek idatzi zuen eta koinatuak irakurri. Gero, bere argazkiekin osatutako bilduma bat ikusten genuen bitartean, haren gustuko hiru bat abesti jarri genituen: Cadizekin kristoren lotura zuen nire emazteak, errautsak han zabaltzea nahi izan zuen, eta Cuba eta Cadiz alderatzen dituen Maria Dolores Praderaren abesti bat jarri genuen. Elkarrekin sarritan entzuten genuen, berezia zen hura biontzat. Gero, Rosario Floresen *El runrun de tu corazón* eta Alaskaren *A quien le importa* entzun genituen, Arritxuren izaera irudikatzen zutelako. Han bildutakoen artean norbaitek hitz batzuk egin nahi bazituen ere, aukera eman genuen. Etxeko eta lagun kuttunekin egindako hileta zibil goxoa izan zen".*



||| "Etxeko eta lagun kuttunekin egindako hileta zibil goxoa izan zen Arritxuren agurreko erritua"

JOSE MARI NUÑEZ
Arritxuren alarguna



||| HILETA ZIBILAK |||||

Hileta eta omenaldi zibiletarako Udalaren baimena eta lokalen erabilera arautzen du 2010eko otsailean onartu zen ordenantzak.

BAIMENA.

Eskaera. Alkateak edo hark ordeko izendatutako zinegotziak emango du omenaldietarako gordetako tokiak erabiltzeko baimena, betiere Udal erregistroan eskatzailearen dokumentazioa jaso ondoren. Eskaerak berehalakotasun printzipioaren arabera tramitatuko dira.

PROZEDURA ABIATZEA.

Aurkeztu beharrekoa. Eskaeretan honakoak agertu beharko du: Eskatzailearen datuak eta sinadura; hildakoaren datuak eta heriotza-ziurtagiaren fotokopia; hala balegokio erraustu izanaren ziurtagiria; hileta zein egun eta ordutan egin nahi den; ekitaldiaren laburpena eta behar izango den materiala (megafonia, mahaia, aulkiak...).

PROZEDURA BIDERATZEA.

Eguna. Alkateak edo ordeko zinegotziak zehaztuko du hileta zein egun eta ordutan egingo den. Eskatzaileek lehenetsitako egun eta orduen ordena kontuan izanik zehaztuko dira, ahal den neurrian behintzat. Hiletak astelehenetik igandera egin ahal izango dira, eta zeremoniak gehienez ere berrogeita bost minutu iraungo du.


Lekua. Eskaera ikusita, administrazioak erabakiko du omenaldi zibila Udalaren zein lokaletan egingo den. Betharramdarretako behe solairuan edo Sindikatu zaharreko eta baigerako aretoetan egingo dira.

Gorpurik ez. Ospakizuna ezingo da gorpua bertan dela egin. Errauts-kutxatik bertan egotea baimenduta egongo da.

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.

Egokitzea. Lokala modu berezi batean egokitu nahi bada, udal zerbitzuari garaiz jakinarazi beharko zaio. Tokiaren ezaugarriak errespetatu beharko dira beti; apaintetako eragindako gastuak eta zerbitzu-osagarriak, interesdunak ordaindu beharko ditu.

Espazio publikoen kasua. Eskatzaileak hiletarako espazio publikoa erabili beharko balu, dagokion eskabidean berariaz adierazi beharko da. Erabiliko den espazio publikoa mugatuko du Udalak, eta dagokion ordenantza fiskalak ezarritako eskubide eta tasen ordainketari lotuko zaio.*



Izpi txiki bat

Aiora. Atxis!

Amets. Jesus, neska!

Ihintza. Jesus ez, Patxi, Patxi!

Aiora. Patxi?

Amets. Aita Santu berria ez al dun Francisco?

Ihintza. Horixe ba, jerga kolokialean Patxi.

Aiora. Aaatxis!

Amets eta Ihintza. Paaatxii!

Aiora. Polen zikin hau...

Amets. Udaberriaren sintoma.

Ihintza. Erleak lorez lore hasi ditun.

Aiora. Eta zelaiax pitxilorez bete.

Amets. Belarretan etzan eta ezer ez egiteko gogoa ematen din. Arnastu. Poliki. Eskuekin belarra ukitzeak kilimak ematen dizkin. Baita tximeletek ere.

Ihintza. Maitemindu egin al haiz?

Aiora. Hormonak dantzan!

Amets. Hormonak dantzan, txoriak kantuan!

Ihintza. Kimu Batekoak hasi ditun belarra mozten.

Aiora. Eltxoen haginkadak gorputz guztian zauzkanat.

Amets. Mandeuli zaharrak etxetik bueltaka "zzzzzz" eginez hasi ditun.

Ihintza. Aurrekoan kortinarekin bidali ezinda haserretuta bukatu ninan.

Aiora. Umore aldaketak ere oraintxe izaten ditun. Kafea izotzarekin eskatzeko garaia ere iritsi dun.

Amets. Arropen kolorea gero eta biziagoa dun.

Ihintza. Ezpainak gorritz margotuko dizkina-gu.

Aiora. Eguzki pixka bat irtetzea nahikoa izaten dun etxeak hustu eta kaleak betetzeko.

Amets. Zer esanik ez aurrekoan Korrikan!

||| AMETS. "Zer esanik ez Korrikan. Zenbat jendek eman dion euskara elkarri"

||| IHINTZA. "Urte guztian korrikarik egin ez dutenak ere irteten ditun"

||| AIORA. "100 metro baditun ere egin dizkinagu arnas estuka!"

Zenbat jendek eman dion euskara elkarri...

Ihintza. Urte guztian korrikarik egin ez dutenak ere irtetzen ditun.

Aiora. 100 metro baditun ere egin dizkinagu arnas estuka!

Amets. Klaro! Jendea "operación bikini" egin hasi dun.

Ihintza. Azkenean! Giro goxoa, epela. Neguan hotz egin din.

Aiora. Elurra. Haizea. Ekaitza. Gogor astindu gaitin.

Amets. Okasiorako kantu bat etorri zaidan burura.

Ihintza. Nik ere mingain puntan zaukanat.

Aiora. Neuk ere bai. Ozen abestuko dinagu!

Denok. Negua joan da ta...✱





“Irakasleen profesionaltasuna azpimarratuko nuke”

Eneritz Fernandez Etxeberria (Azpeitia, 20 urte) 3. mailako Ikus-Entzunezko Komunikazioa graduako ikaslea da MONDRAGON UNIBERTSITATEko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.



Zergatik aukeratu zenituen Ikus-Entzunezko Komunikazioa graduako ikasketak?

Betidanik gustatu izan zait mundu hau. Lan mundurako ate asko irekitzen dituela iruditzen zitzaidan, arlo ezberdinak jorratzen direlako. Kamera eta soinu lanak egiteaz gain, kazetaritza, zinema eta produkzioa jorratzen dira, besteak beste, eta arlo guztietatik pixka bat ikasteko aukera ematen zuelako aukeratu nuen.

Eta zergatik HUHEZI-MONDRAGON UNIBERTSITATEan?

Mondragon Unibertsitateaz oso ondo hitz egin zidaten. Alde batetik, irakasleek betetzen duten funtzio eta profesionaltasunarenatik. Irakasleek ikasleekiko gertutasuna eta konfiantza erakusten dute. Horrelako tratua eskaintzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Bestalde, Huhezina ematen den lko-ko gra-

III “Unibertsitate euskalduna da, parte-hartzea bultzatzen dute eta lan mundura gerturatzen gaituzte”

dua oso praktikoa dela esan zidaten. Ikaste prozesua eramangarriagoa eta eraginkorragoa bilakatuz. Hauek izan ziren bertan ikastera eraman ninduten arrazoi nagusienak.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizi duzun esperientzia?

Esperientzia polita izaten ari da. Ikasketei dagokionez, espero ez nituen gaiak jorratu ditugu eta gehienak interesgarriak iruditu zaizkit. Gainera kurtso ezberdinetako ikasleek ekin-tza batzuk batera egiten ditugu eta horrela, jendea ezagutzeko eta harremanak izateko aukera emateaz gain, besteak beste bako-

tzaren jakituria partekatzeko balio du. Unibertsitateko giroa ezin hobea da.

Zelan definituko zenuke HUHEZIn hezkuntza eredua?

Unibertsitate euskalduna da eta euskararen alde apustu egiten du. Parte-hartzera bultzatu eta honez gain, lan mundura gerturatzen gaituzte. Azken finean, balore eta ezagutza ezberdinak jorratzen ditu unibertsitate honek eta modu honetan, pertsonari hezten laguntzen dio. Teknologia baliabideei ere garrantzia ematen dio, zein diren eta euren erabilpena nolako den.

Non gustatuko litzaizuke praktikak egitea?

Ekoiztetxe batean praktikak egitea gustatuko litzaidake. Beti ere kamera atzean dagoen lana eginez. Berdin izango litzaidake zein lan egin.

Behin gradua bukatuta, zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik urte bat geratzen zait gradua amaitzeko. Gaur egungo egoera ikusita, amaitutakoan, graduarekin zerikusia duen edozein lanekin konformatuko naiz. Baina aukeratu ahal izango banu, kamera atzeko lana aukeratu nuke. Produkzio lana eta bideo edizioa aukeratu nitzuke. Bideoak editatzea asko gustatzen zait.

Hegaztiak, argazkitan

Txorien argazkiak ateratzen jende asko ikusten zuela eta, bere burua desafiatu eta udaberria heltzean hegaztien zain geratzen da.

“Denbora asko eta pazientzia”, horiek dira gakoa.  Ainitze Agirrezabala

Juan Mari Ibarzabalek ibilbide luzea du argazkilaritzan. Duela dozena erdi urte, txorien, eta, oro har, naturaren inguruko argazkiak ateratzeko erronka jarri zion bere buruari. Harrezkero, udaberri aldera hasita, txoriei argazkiak ateratzen aritzen da.

Azken bost urteotan hegaztiei ateratako argazkiekin erakusketa zabalduko du hilaren 27an, Betharram aretoan. 32 argazki guztira, eta beste dozena erdi txorien irudiekin osatutako panel bat ikusgai. Ibarzabalen esanetan, “23 espezieetako txoriak jaso ditut argazkitan: okila, martin arrantzalea, txantxangorria, kaxkabeltxa, xoxoa...”. Azpeitian, Azkoitian, Igeldon, Inurritzan (Zarautz), Montezkun (Tolosa), Orgi basoan (Nafarroa-Lizaso), Mendigorrian, Etzalarren, Leitzaranen eta Sal-

III DATUAK

III **Zer.** Juan Mari Ibarzabalek hegaztiei ateratako argazki erakusketa. III **Eguna.** Apirilak 27tik maiatzak 13ra. III **Ordua.** Astegunean: 18:00-20:00. Asteburuan: 12:00-14:00. III **Tokia.** Betharram aretoa.

buruan (Gasteizen) ateratako argazkiak dira.

Erakusketako altxorren artean irudirik aipagarrienak zein diren galdetuta, martin arrantzalea eta okila aipatu ditu. “Martin arrantzaleari argazkiak ateratzen gozatu dut gehiena. Txoriaren kabia non zegoen esan zidaten eta kamuflatuta joaten nintzen. Guztien artean gehiena kostatu zaidan argazkia, berriz, okilarena izan da”.*

III HEGAZTIEN ARGAZKIEN ERAKUSKETA

5 **urteotako irudiak.** Txoriei argazkiak ateratzeko erronka jarri zion bere buruari orain bost urte, eta argazki horiek ikusgai izango dira.

23 **espezieetako txoriak.** 32 argazkitan hainbat txori mota jaso ditu: okila, martin arrantzalea, txantxangorria, kaxkabeltxa...*



Eskinosoa enborraren gainean. III **Juan Mari Ibarzabal**

III BESTERIK

1 Sanagustinen, hamaika ekitaldi Kontzertuetan, besteak beste, Gari, Kalakan eta Delorean taldeak disko berriein; antzerkian 'Pottola' eta Zuondoan proiektuaren 'Maddi eta Antton'; film laburretan Kimuak; Dantzaki Orbegozo taldearen saloiko dantzak. Umeentzat pailazoak, eta erakusketak ere egongo dira. III **Antolatzailea.** Kultur Mahaia.

2 Autodefentsa feminista tailerra Tailer horrez gain, 'Genero bereizketa medikuntzan' hitzaldia eskainiko du Ana Galarragak (hilak 10, 19:00) eta 24ean (19:00), 'Birginak edo emagalduek. Emakumearen adoktrinamendua historian (1512-2012)' saioa izango da. III **Eguna.** Hilak 19 (18:00-20:30) eta 20 (10:00-13:30). III **Tokia.** Emakume txokoa. III **Antolatzailea.** Udaleko parekidetasun saila.

3 Asteburu musikalak

Aurtengo Asteburu Musikalak egitasmoaren baitan, apirilerako bi ekitaldi antolatu dituzte. Hilaren 14an, kitarra taldeak emanaldia eskainiko du, udaletxeko arkupetan. Aipirilaren 20an, aldiz, Izarraitz Txistulari taldea herriko kaleetan ibiliko da. III **Eguna.** Apirilak 14 eta 20 (zapatua eta igandea). III **Antolatzailea.** Udala.*

III **Azpeitiko** ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



Sanagustin
kulturgunea

AZPEITIA

2013 udaberria

Apirilak

6

zapatua

GARI



Apirilak

13

zapatua



KALAKAN

Apirilak

14

igandea

POTTOIA
·ANTZEZLANA·



Apirilak

27

zapatua



DELOREAN

Maiatzak

4

zapatua

12 TRIBU +
SURVIVAL BOB MARLEY
TRIBUTE BAND

REGGAE GAUA

Maiatzak

12

igandea



EMAZTEGAIAREN
SEMEA ·ANTZEZLANA·

Maiatzak

25

zapatua

EÑAUT
ELORRIETA



AZPEITIA
2013

KULTUR
BONOA

0000134

KULTUR BONOAREKIN:

Kontzertu hauek **doan** ikus ditzakezu,
antzerkiak %50eko deskontuarekin,
eta beste hainbat abantaila! **eskuratu!**

SARRERAK + INFO: WWW.SANAGUSTINKULTURGUNEA.NET

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	I	R	A	K	N	R	R	I	K	●
O	Z	●	L	I	O	S	●	A	T	A
N	A	R	O	●	N	A	E	T	S	●
A	R	A	I	A	●	S	I	T	I	O
●	A	O	B	U	K	●	K	A	R	●
S	I	B	●	K	A	E	Z	A	E	M
E	T	E	N	A	R	E	O	L	T	●
I	Z	A	R	A	L	A	G	●		
O	E	G	E	●	O	K	A	P		
●	B	●	B	●	J	●	D	●		

HITZ GURUTZATUAK

I	Z	A	R	A	N	A	Z	I
R	●	R	A	T	A	B	A	R
A	N	A	T	A	O	S	●	A
N	A	T	A	B	●	I	E	L
S	T	B	I	●	A	R	R	A
O	O	Z	●	A	M	E	R	K
W	K	●	U	T	A	K	A	S
I	S	I	A	L	A	N	●	U
A	L	A	B	A	Z	U	K	E

ZEIN DA?/ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Apirilak 23 (asteartea) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Uztarriaren oparia PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

UZTARRIAREN MARTXOKO ARGAZKI LEHIAKETA

ZEIN DA?



ITZIAR SAGARZAZU, LOIOLA IRRATIKO ESATARIA



IRABAZLEA



Maria Jesus Elustondo Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 148. irabazlea. Aisia hotel-aren eskutik bi lagunentzako talasoterapia zirkuitua eta afaria irabazi du sari gisa. Argazkian, Elustondo.



HILABETE HONETAKO SARIA
2 lagunentzako talasoterapia
zirkuitua eta afaria



KOMUNITATEA

Euskaraz gidatu nahi dut

Badira pare bat urte gure inguruetako autoeskolak gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen hasi zirenetik. Horien artean nago ni, eta atzo bertan aurkeztu nintzen atal teorikoaren azterketara (...).

Espainiako Trafiko Zuzendaritzaren esku baldarrek mota guztietako akatsak oparitu zizkieten nire begiei, ortografikoetatik hasita koherentzia falta nabarmena zuten enuntziatuetaraino. Baziren, ordea, akats larriagoak gela hartan (...).

Galdera bat edo beste irakurri ostean, sortu zitzaizkidan ba, duda pare bat. Ongi ulertu al dut? Hau esan nahi al du? Minutuak aurrera zihoazen eta nik ezin nuen asmatu esaldi trakets haien atzeko mezua zein zen. Eskua altxatu eta zalantzak argitzeko laguntza eskatzea erabaki nuen. "Aztertzaile hauek zerbaitetarako

Minutuak aurrera, ezin nuen asmatu esaldi trakets haien atzeko mezua

INKESTA

Liburuak zer bidetatik eskuratzen dituzu?

Liburutegian mailegatuta. %39,82.

Liburu elektronikoa. %23,01.

Erosita. %28,32.

Lagunekin elkartrukatuta. %8,85.

Oraingo galdera. Zer balorazio egiten duzu 'Denon artean'-en inguruan?

daude hemen, lagundu beharko didate...", nion neurekiko.

Besoa luzatu orduko gerturatu zitzaidan emakume bat, identifikazio txartela lepotik zintzilik zuela, nire galderak entzun asmoz. Esaldi bat amaitu aurretik moztu ninduen ordea. "Lo siento, no entiendo euskara, no te puedo responder". Zuri utzi ninduten haren hitzek, eta beste norbaitek lagundu ahal zidan galdetu nion. "Ninguno de los que estamos aquí sabemos euskara, no te podemos ayudar".

Ziur nago ez naizela lehena, ezta azkena ere, tamalez, honelako baten aurrean topatzen dena. Onartezina eta lotsagarria da hizkuntza batean ikasteko aukera eman eta hizkuntza horretan askatasun guztiz ezin aritzea. Noiz arte jarraitu behar ote dugu horrela?*

aintzane larrañaga

EFEMERIDEAK

1717

Aste Santuan olio txarra saldu zuelako. Eta egiten zituen hutsuneak kontutan izanik, hornitzaileari bi dobroiko isuna ezarri zioten.

1558

Amuko zubiko lanak. Erorita zegoen Amuko zubia eta hori konpontzeko egurra biltzeko lanei ekin zien.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

BIDEOAK



Ibarretxe, nostalgiarik gabe.*

www.uztarria.com
azpeitiko ataiye

eguneko albisteak irakurleen erantzunak eguneko argazkia bideoak blogak inkesta agenda bitxikeriak
'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai eguneko efemerideak gida komertziala...



sartu, eta hartu parte egunero **2.000** bisita pasa (6.000 orri)

Haragia eta koipea

MIKEL URIA sukaldaria

Gure artean, oro har, lureko, aireko eta itsaso-ko abereen zati jangarri guztiei haragia deitzen diegu. Haragi horren pisuaren %20, gutxi gorabehera, proteina da eta hori da bere ezaugarri printzipalena. Gure giarreak garatzeko ezinbestekoak dira proteinak; kanpotik datozkigun infekzioen aurka dugun babesaren oinarria dira.

Haragi mota guztietan dago koipea eta hortik sortzen dira zapore balio energetikoaren edo botaminen ezberdintasunak. Kaltzioz aberatsak dira eta bitaminaz pobreak, nahiz eta nire lagun txantxazale batek hau esan: 'Bitaminarik onena txuletamina da'.

Abelgorrien eta arrain-haragien arteko ezberdintasun nagusia da arrainek zuntz konjuntibo gutxiago dutela, eta horrek liseriketa errazten du. Arrainen koipeak oso baliagarriak dira odoleko kolesterola gutxitzeko; abereenak, aldiz, igo egiten dute.

Kimika aldetik, koipe guztiak triglizeridoak dira. Solidoak koipeak dira, eta likidoak olioak. Likidoak edo olioak hobeak dira osasunarentzat eta prezia-
tuena olibarena da arrazoi guztiz.

Margarina Frantzian asmatu zuten duela 150 urte, Prusiaren aurkako gerratearen ondoren sortu-tako gosetea medio. Gurinaren orde-
z kontsumitzen da. Inolaz ere ez da, ordea, gurina baino hobeia.*

||||||| **julian bereziartua** |||||



1. Sukaldean zer ez da falta behar inoiz?
Lanerako gogoa eta gatza.

2. Eta, zer tresna?
Ondo zorrozitutako labana.

3. Goilara ala sardexka?
Garaiaren arabera.

4. Sukaldari ona izateko osagaiak?

Munduan zehar asko ibili eta hainbat jatetxetan lana egin.

5. Prestatu baina inoiz jan ez duzun platera?
Ostra gordinak.

6. Zer jakik du ospea?
Txerri-hankak onddoz eta foiez beteta, iberiar masailak eta arroza abakondoarekin.

7. Urteetan antzeko platerak prestatzen ez al da bat aspertzen?
Pasioz eginez gero, ez.

8. Gehien gastatzen duzuen generoa?
Azenarioa, tipula, porrua eta baratxuria, kiloka.

🍷 Ainitze Agirrezabala

AIZPURU AUTOAK
Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia
aizpuru@aizpuru.net

 **domusa**

 **ostadar optika**
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **dai**
arte eta diseinu ikastegia
● **Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
● **Pintura** 17:30/19:00
● **Talla** 19:30/21:00
Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

 **KIRURI JATETXEA**
Lolola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

 **Iuba**
aholkularitza
Finanzen administrazioa
Gestio inbiliariora
Tlf: 943 157 323 Faxa: 943 157 375
Emparan kalea, 43 • Ibañeta/Donostia

 **ORDULARI**
Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

Zelaitik kanpokoak

Bizia da futbolean nahiz lagunartean. Berdegunetik atera eta, geldirik ezin egon. Halakoxea da Peña. 📝🎧 Julene Frantzesena



Espainiako futbol ligan aurreko postuetan da Realak. Bai, bai. Bartzelona, Real Madril eta horrelako izendun taldeen atzetik, Europako postuetan. Zenbaiti aste-burua alaitzen dio Realaren garaipenak, eta Donostian Realeko emakumeen futbol talde bat badela ere ahazten zaie askori. Zenbat aldiz entzuten dira “Vela bai jokalaria!” edo “Illarrak dauka egurra” bezalako komentarioak. Eta, inoiz edo gutxitan, iristen dira gure begi-belarrietara Superligako emakumeen berriak.

Emakumezkoen lehen mailako jokalaria da. Superligakoa, alegia. Emakumea eta Realeko futbolaria da Eguzkiñe Peña (Azpeitia, 1992). Futbola eta ikasketak tarteko, Donostian bizi da, eta futbolak “gauza asko kendu, eta beste batzuk eman dizkiola” esaten du bere herriaz eta ingurukoez galdetutakoan.

“Futbolean jokatzeari kibratu egiten diten/k eta horrela bizi liteke”, bezalakoak ere sarri entzun izan dira, baina futbolari emakumeen kasua oso desberdina da: “Guk ez dugu askorik kibratzen, ez bizitzeko adina

behintzat. Horregatik, ikasi eta lana egin behar izaten dugu. Eta, ahal bada, biak partekatu, gainera. Gustatuko litzaidake futboletik bizitzea, baina oso zaila dago. Nik ez dut egoera hori ezagutuko, eta denborarekin espero dut gizona zkoen futbolaren parean jarriko dela emakumeena. Gure ondorengoek ezagutuko ote dute hori! Guk zerbait irabazten dugu, baina afizioa bezala hartu behar dugu. Asko gustatu behar zaizu futbola egoera honetan egoteko, eta niri asko gustatzen zait”.

Futbolak eta bukatu berri dituen kirol-ikas-
ketek (TAFID) denbora asko kentzen diote
Peñari, eta Donostian bizi bada ere, ahal
duen bakoitzean, bi astean behin normalean,
Azpeitira etortzen da. Sorterrira etorritakoan
famiarekin eta lagunekin egoteko aprobe-
txatzen du. “Azpeitian herri giro handia dago,
Donostia handia da, eta... taldekideez gain ez
daukat lagunik han. Realak jarritako pisuan
bizi naiz taldekoekin, eta TAFIDeko klaseki-
deok ez gara kalera elkarrekin ateratzen. Fal-
tan botatzen dut lagunekin kafe bat hartzera
joatea”.

Lagunak lagun

Pertsonen arteko harremanek betetzen
duten horietakoa da, baina futbolaraz gain,
hainbat afizio du. “Telesailak nahiz filmak
ikustea gustatzen zait. Irakurri ere irakurtzen
dut tarteka, eta liburu batekin katigatzen ba-
naiz bukatu arteko onik ez dut izaten. *Cin-
cuenta sombras de Grey* trilogiako bigarre-
narekin ari naiz, baina pixkat utzita daukat”,
azaldu du. Futbolariek, oro har, parrandazale
fama ere badute. Denborarik gelditzen ba-
zaio, hori ere egiten du: “Ez dut parrandarako
aukera asko izaten, eta aukera dagoenean
aprobetxatu egin behar. Oso ondo pasatzen
dut Azpeitiko festetan, eta batez ere Txikiteo
Elegante eguna dut gustuko”.

Herrira etortzen ez den asteburuetan kan-
poan izaten da, bidaia luzeen ostean norma-
lean, partida jokatzera joanda. Azken aste-
tan Valentziara edo Sevillara joan dira, eta ha-
lako bidaiak autobusez zein hegazkinez egi-
ten dituzte. “Autobuseko bidaiak luzeak iza-
ten dira, eta zapatuan irten eta igandean
itzultzen gara etxera. Nekagarria izaten da.
Hegazkinari beldurra diot, ordea”, gaineratu
du barre artean: “Begira zer diren gauzak, he-
gazkinei izugarritzko beldurra badiet ere, az-
kena ikusi dudana filma *El Vuelo* izan da, eta
asko gustatu zitzaidan. Hori bai, halakorik ez
gertatzea espero dut. Atsegin dut zinera joa-
tea, eta beldurrezko pelikulak izan ezik, ia
mota guztietakoak gustatzen zaizkit”. Pantai-
latik kanpo, eszenatokietako kontuak ere
gustuko ditu. “Antzerkia gustuko dut. Azpeiti-
ko emakumeek egindako obrak ikustera joan
izan naiz, eta ederra izaten da. Txikitan ibili
nintzen ikastolako antzerki taldean, baina ez
da nirea”.

Pribatutasunari eutsiz

Gazte gehienen gisan, *Tuenti*, *Facebook* eta
Twitter kontuak zabalik ditu azpeitiarrak.
“*Twitter* erabiltzen dut gehien, baina ez dut



1. Azpeitira etortzen den aldiro
koadrilakoekin egoteko tarteak
aurkitzen saiatzen da Peña. **2.**
Realeko nesken taldeko jokalariek giro
aparta dute aldageletan eta handik
kanpo. **3.** Denboraldi honetan minutu
ugari jokatzeko ari da azpeitiarra.
Taldekide baten lesioa tarteko,
aurrelari postua bereganatu du
hamaikakoan. Bi gol sartu ditu 2012-
2013 denboraldian.

gogoko nire bizitza han azaltzea. Nahiago dut
pribatutasuna gorde. Realeko jokalaria naiz,
eta jendeak idatzi izan dit bata edo bestea
esanaz, eta hori ere gustura hartzen da”.

Twitter oso modan dagoen sare soziala da,
eta komunikabideak, elkarteak, taldeak nahiz
norbanakoak daude erabiltzaileen atzean.
Norbere interesen arabera albiste berri
izateko baliagarria da: “Albisteekin enteratze-
ko balio du *Twitter*rek. Jarraitzen ditut pareki-
detasunaren inguruan idazten duten erabil-
tzaile batzuk, lagunak, Uztarria... eta herrian
zein inguruan gertatutakoaren berri izaten
dut. Nire gauzak, ordea, ez ditut gehiegi txio-
katzen. Interesatzen zait munduan zer gerta-
tzen den jakitea, batez ere, neure gustuko
gauzak direnean. Politika eta, adibidez, ez
zaizkit asko gustatzen, eta askotan haserretu
egiten naiz irakurritakoarekin. Aurreko bate-
an, esaterako, emakumeek futbolekin ez luke-
tela jokatu behar zioen txio bat irakurri nuen,
eta ez nintzen loturara sartu, banekielako ha-
serretu egingo nintzela”.

Superstizio kontuak

Kirolari gehientsuenen gisan, sineskera edo
superstizioak ere baditu. Athletikeko nesken

lehen taldeko jokalaria bati egunkari baten
egindako elkarriketa irakurritakoan jabetu
zen “muturrera joan gabe” berak ere usteka-
bean, bazituela halakoak. “Athletikeko jokalari
batek elkarriketa batean zihoen bazuela
superstizio bat, eta horregatik sartzen zela
zelaira ezkerreko hankarekin. Nik halakorik ez
daukat, baina badut noizean behin egiten
dudan zerbait. Adibidez, Zubietan jokatzeko
dugunean, porteria batera joan hanka bate-
kin zutoina jo, porteriako lerro gainetik beste
zutoinera joan, eta hura jotzen dut beste han-
karekin. Ohitura hartu dut. Goleko jokaldiak
irudikatzeko joera ere badut. Ikastolako
umeak entrenatzen genituenean, guraso
batek esan zidan bere semea esaten ziola
jokaldiren bat edo golen bat irudikatzeko.
Esan zidan saiatzeko, eta hasi naiz horretan
ere. Pentsatzen dut zerbaitetarako balio
duela irudikatzeko, eta sinesten dut halakoe-
tan”.

Zelaian aurrelari bizia da Peña, eta zelaitik
kanpo ere geldirik egon ezin duen horietako-
koa. Afizioak afizio, futbola du pasio, eta
Lagun Onaken hasitako bideari urte luzez
eman nahi dio jarraipena. Inoiz bilakatuko ote
da emakumeen futbola ofizio.✘

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11

FARMAZIAK (APIRILA)

EGUNEZ

1-9-12-13-14-18-24-30	2-6-7-10-19-23-25	3-5-11-16-22-27-28
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 811274	943 080258	943 811949

GAUEZ

1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-22-23-24-25-26-27-28	15-20-21
Beristain (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 811949	943 851235

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 24an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



MAILEGU-ZERBITZUA.

Liburuak, DVD-ak edo aldizkariak maileguan hartzeko zerbitzua eskaintzen du Udal-liburutegiak. Horrez gain, egunkariak irakurtzeko aukera eta Internet zerbitzua ere badago.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

16-17-29	18-30
Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 851966	943 850660

19
Azpiazu (Azkoitia).
943 852989

UGAITZ AGIRREGOMEZKORTA

suhiltzailea

“Beti sasoi betean egoten saiatsu behar dinagu”

Muturreko egoeretan lana egitea dagokion arren, bere burua ez du inondik ere super-heroitzat.  Ainitze Agirrezabala

Bokazio kontua al da?

Pixka bat bai. Gainera, suhiltzaileen parkea etxetik 200 metrora eduki izan dinat. Ez zakinat horregatik den edo zer, baina egia esan, aspalditik ninan suhiltzaile izateko gogoia.

Zenbat urte daramak lan honetan?

Hiru urte. 2008an lortu ninan plaza. Lehena-go, lana utzi eta urtebetez oposaketak prestatzera kontzentratu nindunan. Gipuzkoako oposaketetan bereizgarria dun ofizioak jakitea. Bizkaian, aldiz, kristoren garrantzia diten proba fisikoek.

Alderdi fisikoak pisu handia dik zuen lanean. Nola prestatzen haiz?

Suhiltzaile-parkean badinagu gimnasioa, eta egunean ordubete entrenatzen dinagu, lan-ordutan. Beti sasoi betean egoten saiatsu behar dinagu. Horrez gain, mendiko lasterketetan ibiltzen naun, *ultrafondo* deritzon horietan, eta asko entrenatu behar izaten dinat.

Hire lanean une gogorak ere tokatu-ko zitzazkian.

Bai, denetik izaten dun, baina suposatzen da fisikoki eta psikologikoki prestatuta gaudela. Okerrena sua dun, oso estresagarria. Sute

handietan aritu izan naun. Istripuak, berriz, tristeak ditun. Lana azkar egin behar dun; segundoak erabakigarriak ditun biktimarentzat. **Gertaera arinagoak ere bai, ezta?**

Azkoititik deitu zigutenan behin, arbola bate-tik katu bat jaisteko.

Irteerarik ez duzuen txandetan nola pasatzen duzue denbora?

Beti zagon zer egina. Parkean mantentze-lanak egin, kamioiak berrikusi... Guztia puntuan eduki beharra zagon. Istripuen eta sute-en simulazioak ere egiten ditinagu. Beti gauden aktiboan, kanpoan ez bada barruan.

Eta alderdi txarra?

Gauza gogorak ikusi beharra. Azpeitiarra izanda, zerbait larria gertatzen denean ohikoa dun jendea ezaguna izatea. Orain, halerre, auto istripuak asko jaitsi ditun. Duela urte batzuekin alderatuta, zorionez, jendeak orain errepidean zentzu handiagoarekin jokatzeko duela esan daiteke.

Lanbide honen alderdi ona?

Zeozer ondo egiteak ematen duen satisfazioa. Jendearen esker onak bete egiten hau. Hori dun politena.✱



1./2. Alemaniako Zugspitze mendi lasterketan, 2011. urtean **3.** Azpeitiko suhiltzaileen-parkean, kamioiarekin.



Don martin saez, azpeitiarra

Jaun gazte bat, itxura aberatsekoa, goiz batez harat hunat zabilan Doña Justeko eliza aitzinean; haren urrats kexuak erran nahi zuen aspaldian norbaiten beha zagola. Eliza hartarik noizbait atera zen gizon bat. Eliza atean eskatu zuen, bildu zonbait ardit, kurutzearen seinalea egin eta otoitzean ari zela handik itzali. Jaun gaztea ondotik jarraiki zitzaion; etxe txar batean sartu zen eskalea. Jaun gaztea karrika izkin batean jarri zen, etxe txar hari buruz. Hemen oraino luzaz iguriki zuen; eskalea noizbait atera zen; jaun gazteak zohala utzi zuen eta bera sartu zen etxe hartan; ganerrerraino igan zen, burdin txar batek zagokan ate bat ideki zuen eta han kausitu emazteki bat oinaze minenen ardian.

—Emaztekia, nahi nuke jakin hemendik orai atera den gizonak zer duen izena!

—Jauna, ez dakit.

—Ez dakizu beraz nor den?

—Ez, Jauna. Ez dakit nik haren karitatearen eta saindutasunaren berri baizik. Gorputzean eta ariman hark soleitzen nau. Ez da gizon bat, saildu bat da, aingeru bat da. Haren gainean ez dezaket nik bertzerik erran, behin ere ez dut haren deiturarik entzun. Nik dakidan guzia da Iñazio duela bataioko izena.

—Aski jakinik badut; berriz etortzen deneko, horra ene izena eta ene egontokia; erranen diozu ene moltsa beti idekia izanen zaiola, eta behar duen guzia han har dezan bere pobrentzat.

Bi egunen buruan, eskalea etorri zen emazteki eriaren ikusterat.

—Jauna —erran zion eriak—, herenegun etorri zait jaun gazte bat, eta paper hau utzi du zuretzat, diolarik zure eskuko dagokala pobrentzat behar duzun diru guzia.

Eskaleak papera hartzen du eta hitz hauek irakurtzen: “Don Martin Saez, Azpeitiarra”.

—Arreba maitea —erran zion eriai—, orai bertetik Jainkoaren eskurat uzten zaitut; nik deus ez dezaket gehiago zuretzat.

Iñazio Loiolakoak ahaide hurbil baten izena



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Iñazio Loiolakoak ahaide hurbil baten izena leitu zuen; bere burua ikusten zuen ezagutua (...)

leitu zuen; bere burua ikusten zuen ezagutua eta ez zuen nehola ere don Martinekin gertatu nahi: beldur zen, beldur herriaren eta odolaren amodioak gaina har zezan oraino haren bihotzean. Don Martini beraz gordetzerat egin zion.

Denbora guzia obra onetan zeraman, eriak ikusiz, pobreak sokorrituz, haurrak argituz, gazteria bere xede onetan bortituz, noiz eta apirilaren hemeretziaren, 1527an hiriko mutilak lotu baitzitzaizkon, ziotelarik:

—Zure preso hartzeko manua dugu.

Iñazio Loiolakoak hitz bat atera gabe, bere burua utzi zuen eramaiterat.

Berria barreiatu zenean preso zela, goiz arrats ez zen jendea haren presondegian atertzen, eta guziak hunkituak itzultzen ziren haren saindutasunaz, Jainkoarentzat haren amodio kartsuaz, etsaientzat haren karitate miragarriaz.

—Jainkoaren maitatzea —zion beti presonerak— Jainkoaren maitatzea, Jainkoarentzat zerbaiten jasaitea, horra, horra desterru hunkako zorion bakarra, zorion egiazkoa.

(*Bi saildu heskualdunen bizia*, 1867, Frantzizko Laphitz).✱



Zure ezkontza ingurune ezinhobean

Hondartzaren ondoan eta itsasoaren aurrean, Aisia Deba hoteleko profesionalek duten guztia emango dute zure ezkontza-jaia beti amestu duzun bezalakoa izan dadin.

Gipuzkoako herri honetako hondartzaren ondoan, itsasoaren aurrean eta bista ikusgarriekin, Aisia Deba zure ezkontza hasieratik bukaerara personalizatzeko aukera ematen dizu. Bertan ospatu dezakezu ezkontza zibileko zeremonia, itsasoaren aurrean, eta coctelak, menuak, musika, dantza... dena zure erara antolatzeko aukera ematen dizute. Zure ezkontza bakarra delako, Aisia Deba zure nahi, behar eta aurrekontura moldatuko da.

Banketeari dagokionez, eskaintzen duten kalitate gastronomikoa azpimarratu behar da. Sukaldeko arduradun Xagit Andonegi sukaldari entzutetsua dago, kalitate goreneko produktuak erabiliz plater tradizional zapoetsuak prestatzen dituelarik. Jantokia Mirreia Azpiauren ardurapean dago eta lantalde zabal bat arduratzen da banketea behar bezala atera dadin. Aisia Deban, gainera, ez dira zaporeaz bakarrik arduratzen, cocteleko pintxoak eta banketeko plater bakoitzaren aurkezpena bereziki lantzen dute, originaltasuna bermatuz.

Azpiegiturei dagokienaz, ingurune zoragarriaz gain, bere jantokia nabarmendu beharra dago: 200 lagunentzat prestatua dago eta bertako bistak gonbidatu guztien gustukoak izango dira. Gainera, saloietan ospakizuna gauerdia igaro arte ere luzatu daiteke, zure ezkontza hasieratik bukaerara Aisia Deban ospatzeko aukera eskainiz.

Baina Debako hotel honetan ez dira ospakizun handiak antolatzen bakarrik adituak. Ekitaldi intimo eta xumeagoak antolatzen ere esperientzia handia dute eta bataioak, jaunartzeak, enpresa eta lagun arteko jatorduak... bertan egiteko aukera paregabea



duzu. Ezkontzekin bezala, ekitaldi horiek zure gustuen arabera personalizatu ditzakezu. Izan ere, Aisia Deban zure neurrirako alternatiba bat izango dute, zure beharrak edonola-koak izanda ere.

Azkenik, hotel honek duen zentro termala aipatu gabe ezin utzi; bezeroarentzat beste aukera bat gehiago eskaintzen duelako eta establezimendu honen eskaintza zabalaren erakusgarri delako.*

Informazio +
943 60 80 52

www.aisiahoteles.com





innovadental

hartz-klinika
AZPEITIA



ORTODONTZIAN

adituak



Merkatuan dauden **teknika aurreratu**enekin haurren eta helduen **hartz posizioa** zuzentzen dugu.

16 urte bitarteko umeentzat, kontsultatu gure deskontuak enpaste, endodontzia, radiografia eta garbiketetan.

innovadental

Bisita gaitzazu:

José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

943 02 59 55

*Eskatu aurrekontua
konpromisorik gabe*